



## Edurne Pasaban

«8.000ko guztiak  
igotzen lehen  
emakumea izan  
nahi nuen,  
baina ez prezio  
horretan»

**Net Hurbil** Ogi eta petrolio eskasiak ekarri du Egiptoko errebolta

- **Kirola pasaporte** Etiopiako korrikalariek Europan lehiatzea dute helmuga
- **Maiorga Ramirez, EA:** «EAJ eta Aralarrek eskatzen digutena xantaia onartezina da»
- **Ignasi Vila, psikologoa:** «Eskolan zein hizkuntzatan irakatsi, hautu politikoa da, ez pedagogikoa»

Karlos Zurutuza  
Iraketik **الله اكبر**

Abu Ghurayb  
Al Basrah  
Al Qadisiyah  
Baghdad  
An Kirkuk  
Arbil  
Al Faw  
As Sulaymaniyah  
Al Havya  
Zakho  
Al Mawasil al Jadida  
Ash Shatrah  
Mosul  
Al Hillah

GREETINGS  
FROM  
IRAQ

**Karlos Zurutuza** kazetaria  
Iraken izango da  
**otsailaren 7tik aurrera.**

AEBetako tropak etxera itzuliko dira  
aurten, Iraken gerra hasi zutela zortzi  
urte martxoan beteko direnean.

Ustezko trantsizio une hau gertutik  
bizi ahal izango dugu Zurutuzaren  
blogean, egunero, eta hilabetez.

**argia.com/irak**

**argia**

**Otsailaren 15etik aurrera,**  
zenbait hilabetez,  
**Iker Blas** politologoa  
Hegoamerikan ibiliko da.



Bertan ikusi, bizi eta  
ezagututakoak jarraitzeko  
aukera izango dugu  
Iparra Hegoan bere blogean.

**argia**

**argia.com/iparra-hegoan**



Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera ➤



**gizarte**  
**kutxa**  
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2011ko otsailaren 20a, 2.265. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Sagrario Aleman:** «Etorkizunean baikortasuna baino fedea beharko dugu». ARITZ GALARRAGA / 4

## Asteko gaia

- **Desagertzeaz dauden lanbideak.** Garaian garaiko beharren aginduetara. UXUA LARRETXEIA / 5

## Pertsonaia

- **Edurne Pasaban:** «Askotan eman dut buelta beldur nintzelako». SUSTRAI COLINA / 10

## Gaiak

- **Tirhas Gebre eta Akebom Hadush, etiopiar atletak:** «Korrika egiteak etorkizunera begiratzeko aukera eman digu». IRATI SARASUA / 15

## Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** «Datsegit»ak eta «desatsegit»ak. BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Manipulazio instituzionala.** AINHOA LARRAÑAGA / 20
- **Txandan** Gazteak. EDU ZELAIETA / 20
- **Printzesa altruista heldugabeak.** PAULA KASARES / 21
- **Hiruko txikian** Harriturik. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Irainzaileak aholkulari. MIREN AMURIZA / 22

## Erdiko kaiera

- **Euskal liburu digitala:** bi eredu eta hamaika galdera. GORKA BEREZIARTUA / 23
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## Termometroa

- **Maiorga Ramirez:** «EAJ eta Aralar beldur dira egoera berriaren aurrean». MIKEL ASURMENDI / 37
- **Ignasi Vila:** «Arazo politikoa da haurra hizkuntza batean edo bestean eskolatzea». MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Ogia eskatu dute egiptoarrek: petrolioak dute falta. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- **Aurrezki kutxen etorkizun lausoa.** BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 50



## *“Etorkizunean baikortasuna baino fedea beharko dugu”*

**Sagrario Aleman | Oso euskaltzaina**

Añamendik dio: personalidad política y cultural navarra.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Josu Santesteban

### **Baduzu meritua: Euskaltzaindian sartu duzu euskalgintza!**

Euskararen batasuna dela-eta euskalgintzako talde guztiak dantzan jarri dituen erakundea ez zela euskalgintzan ari? Alfabetatzeko Batzordea sortu zuena zergintzan aritu da 100 urtean, bada?

### **Arrazoi gehiagorekin: euskalgintzaren sintesia zara, Sagrario.**

Euskalgintzak egindako lana pertsona bakar batean biltzea ere, kontuan hartuta zenbat eta zenbat aritu den eta ari den, zorionez, euskalgintzan...

### **Hotza, gosea, gerra, zer ez duzu ezagutu urteotan!**

Hori da hori bizimodu petrala! Denetik izaten da gure bizian, baina une txar eta latzak besterik ez ote dut, bada, izan? Ezezkoan nago.

### **Latzak eta ez hain latzak, baina dena euskargatik.**

*Todo por...* hori gogorarazten dit. Batzuk patriagatik, besteak patriagatik, futbolagatik, tabakoagatik... edozer egiteko prest egoten dira. Ez dut hautaketa txarra egin, ez horixe.

### **IKA eta AEK: hain gertu, hain urrun...**

Bokal baten gorabehera besterik ez. Helburu bera duten bidelagunak bezalaxe, bata atse den hartzen gelditu eta besteak aurrera segitzean urruntzen dira; laster, ordea, berriz elkarren ondoan. Beraz, zein unetan begiratzun duzun hurbil edo urrun ikusiko gaituzu.

### **Noizko euskalgintzako polo soberanista?**

Aspaldian horren irrikan nago, euskarak

nagusitasuna izan dezan, subiranoa izan dadin, erdararen mendekotasuna alde batean utzita. Uste dut, ordea, barra-barra subiranotasunaz ari direnek ez dutela buruan euskararen nagusitasun hori...

### **IKAren lorpenik handiena, Alvarez Rabo testuliburuetan sartzea!**

Baldinbes! Edo agintariak liburu horiek ez erretiratu izana? Eta Iruñeko IKAn erdiespenik batere ez, Asiskoren marrazkiak erabiltzen ditugulako?

### **Politikan ere ezagutu dituzu hausturak, eta zatiak elkarri lotzea zaila izan...**

Ezagun batek, hezurra erdi hautsirik, medikuek ez ziotela sendatzen eta petrikiloarengana jo zuen. Eta horrek krak!, hezurra hautsion, hezuraren bi zatiak elkarri ongi lotu eta akabo oinazeak. Hausteko uneko atx! ozen hura aski izan zen hezurra konpontzeko.

### **Baikor, beraz, etorkizunarekin.**

Badatorrela eta inoiz etortzen ez den etorkizunean baikortasuna baino fedea beharko dugula uste dut. Euritakoa gaur, euria ari due nean, hartuko dut, eta ez etxean utzi, etzi, beharbada, euria izanen dugula eta. Helburua gaur ez bustitzea da.

### **Ai farmazian aritu izan bazina, aspirinetan aurreztuko zenuen...**

Aspirinetan aurreztu ez dakit, saldu bai eginen nuen gehiago. Eta agian, laborategiren batean ariko banintz, eureka!, ikasleek eskatzen diguten euskara ikasteko pilula asmatuko nukeen. ■

## Desagertzeaz dauden lanbideak

# Garaian garaiko beharren aginduetara

Garai bakoitzak bere lanbideak ditu, eta horrenbestez, asko dira eskariak eta modak eraginda desagertu direnak edo desagertzeaz daudenak; krisia ere ez da lagungarri. Artisautza tradizionalarekin lotura dutenen artean aurkitu ditugu horietako ugari.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco

PREGOILARIA, AGUAZILA, gauzaina, farozaina, telegrafista, fideo eta ehun fabrikatzaile ibiltaria, perratzailea, meatzaria... Orain arte gurean izan diren lanbideetako batzuk dira horiek, baina egun desagertuta daude, edo apenas dute presentziarik. Azken finean, herrialde bateko ogibideak hertsiki loturik

daude bertako gizartearekin, unean uneko premiei erantzuten baitie gizakiak, eta horien konponbide gisa sortzen dira lanbideak. Eli-katu nahiak eraman zituen ehizarako tresnak fabrikatzera, edota janzteko beharrak arropak egitera. Garai bakoitzak bere beharrak ditu eta profesioak aldatuz doaz; batzuk desa-

Forjari lanetan, Markinan.



KARMELO URDANGARINEK UTZIA



Karmele Larraza, Xapatin zapata dendan lanean.

gertu egin dira eta beste batzuk, sortu edo indartu.

Inguruak ere asko baldintzatzen ditu ofizioak. “Kostan, arrantzaren ondorioz, sareak edo itsasoarekin loturiko gauzak egin izan dira, eta Gallartako meategi zonaldera joanez gero berriz, meategian lan egiteko tresnak edo jantziak”, azaldu digu Karmelo Urdangarinek, lanbide tradizionaletan aditu. Artisauak, finean, bere inguruko behar eta eskari erantzuten die.

XIX. mende erdialdera arte ogibide guztiak artisau lanak ziren, ez baitzegoen makinarik. “Artisaua eskuekin lan egiten duena da, eta makinaren laguntza oso-oso gutxi erabiltzen duena”. Emeki-emeki haziz joan ziren premiak eta horiei emandako konponbideak, lanbide berriak etengabe sortuz. Geroz eta soberakin gehiago agertzearekin batera, indartu egin zen merkataritza, eta fenomeno horrek produktu gehiagoren elkartrukea bultzatu zuen. Urteek aurrera

**Pregoilaria, aguazila, gauzaina, farozaina, telegrafista, fideo eta ehun fabrikatzaile ibiltaria, perratzailea, meatzaria... Orain arte gurean izan diren lanbidetako batzuk dira, baina egun desagertuta daude, edo apenas dute presentziarik**

egin ahala, langileak gero eta gehiago erabiltzen zuen makina bere lana egin ahal izateko, eta horrenbestez, artisauaren irudia indarra galtzen joan zen.

Urdangarin debatarra da Euskal Herriko ofizio tradizionalak gehien aztertu dituenetako bat. Hogei liburu baino gehiago argitaratu ditu beste hainbatekin elkarlanean, eta horietatik hamalau lanbide tradizionalei buruzkoak dira. Duela gutxi, *Gipuzkoako lanbide tradizionalak* hamaika liburukiz osaturiko bilduma kaleratu zuen. Jose Maria Izaga, Koldo Lizarralde, Julen Zabaleta eta beste hainbatekin batera, artisau lan zaharrenak jaso ditu argitalpenotan, desagertu aurretik bilduta gera daitezen eta ez ditzagun ahaztu. Dagoeneko, 200 artisau lan jaso dituzte eta horien garrantzia azpimarratu nahi izan du: “Ezin da egungo industria ulertu, gure arbasoen lanbideak ulertu gabe”. Nabarmendu duenez, artisauaren lana etengabe aldatzen joan da, eta horretan zerikusia izan dute lanabesen alorrean edo lan egiteko moduan eman izan diren aldaketek. Gipuzkoako Foru Aldundiak desagertzen ari diren artisau lanak filmatu, deskribatu eta jasotzeko martxan jarri zuen ekimena txalotu du Urdangarinek: “Horrek bermatuko du hemendik 30 urtera berriz ere egin ahal izatea iraganean artisau batek egiten zituen lanak”.

#### Artisautza tradizionala kinka larrian

Aipatu 200 lanbide horietatik egun hamabost-hogei inguru desagertu direla dio Urdangarinek, eta Euskal Herriko artisautza tradizionalarekin lotura dutela: “Geroz eta gutxiago dira burdinarekin, egurrarekin eta lurrarekin lan egiten dutenak”. Gainera, oraindik orain hainbat lanbide erabat desagertu ez badira ere, azken urteetan horien gainbeherak abiadura handia hartu du. Hain justu, egurrarekin lan egiten duenetako bat da Larraulgo Karlos Irazu. Duela hamabi urte hasi zen artisau lanetan, eta orduan zainekin, enborrekin eta adarrekin armairuak, mahaia, eskulturak eta irudiak egiten zituen. Gerora, merkatua zabaldu behar zuela oharturik gauza funtzionalagoak egiteari ekin zion:

**Artisautzari eskela jarri aurretik,  
"azokak antolatu beharko dira,  
dendak ireki, baita webguneak  
sortu ere, egungo garaira  
egokitu behar baitugu"**

**KARLOS IRAZU, EGUR TAILAGILEA**

apaingarriak (egurrezko onddoak eta karakolak, kasu), ordulariak, txalaparta txikiak eta ispiluak, besteak beste. Horrez gain, material ezberdinarekin lanean ere hasia da, burdinarekin, esaterako. Orain lanbide du artisautza, baina beti ez da horrela izan. Lehen herriko taberna batean egiten zuen lan eta denbora librean baliatzen zuen egurrekin esperimentatzeko; ondoren, lan horren fruituak tabernan bertan jartzen hasi zen apaingarri moduan. Horietako batzuk saltzen zituen eta azoketara ere joaten hasi zen, bokazioa ofizio egin zuen arte. Egun, Gabiltza artisau elkarteko kidea da.

Urdangarinek artisauen artean bi talde bereizten ditu: artisautzatik bertatik bizi direnak, alde batetik, eta zaletasun gisa hartzen dutenak, bestetik.

### **Eskaria, moda eta krisia**

Lanbideak sortzeko eta desagertzeko arrazoen artean, zirikusi zuzena du ezbairik gabe eskariak; horren arabera moldatzen du artisauak bere egitekoa. "Burdinazko, egurrezko edo basazko lan gutxiago eskatzen dituzte egun, eta kontrara, beste gauza batzuek geroz eta arrakasta handiagoa daukate, hala nola, bitxiak edo jantziek", dio Urdangarinek. Lehen, adibidez, uztarriak idiak elkarri lotzeko erabiltzen ziren eta bazen eskaririk; orain, ordea, sagardotegi edo taberna bakan batzuetan apaingarri gisa baino ez dira erabiltzen. Gauza bera gertatzen da egurrezko koilara-sardexkekin ere;



**Karlos Irazu, lanean.**

lehen horrelakoxeak erabiltzen ziren etxeetan, gaur egun askoz gutxiago.

Eskari aldaketa hori egungo ohiturak eta baloreak bestelakoak direlako etorri da, eta horrek, Urdangarinen hitzetan, kalte handia egin dio Euskal Herriko artisau tradizioa-

**arabako bertsolari txapelketa 2011 bete!**

Antolatzailea: Babesle Nagusiak

Obra Social Fundación "la Caixa"

radio vitoria

ATAURIko Antzinako Eskoletan

Alfarian izena emateko: saila bueno bituen lehenengo: 675 70 79 71 edo arabako.antzenak@bertsolaketa.com

**4. KANPORAKETA**

Otsailak 25, ostirala, 20:30ean afaria, 10:30ean saioa


**ATAURIko** Antzinako Eskoletan

[www.arabakotxapelketa.org](http://www.arabakotxapelketa.org)

**Gai-jartzailea**  
**IDOIA BEITIA**

Manex Agirre  
Zigor Enbeita  
Ekaitz Samaniego  
Maite Solozabal  
Iker Pastor  
Irati Anda

**argia**



Karmelo Urdangarínek hogei liburu baino gehiago argitaratu ditu beste hainbatekin elkarlanean, eta horietatik hamalau lanbide tradizionalei buruzkoak dira.

lari: “Demagun dekoraziorako bi figura daudela; bata eskuz egin dago eta 10 euro balio ditu, eta bestea, berriz, tornu bidez egin da eta 8 euroren truke eskura daiteke. Ziur azken hori salduko dela errazago, atzean dagoen lanaren aurretik jartzen delako gaur egun prezioa”. Irazuren ustez, jende askok zuzenean folklorearekin lotzen du artisautza, ez du beste edozein lanbide moduan ikusten, nahiz eta horrela izan. Horregatik, artisautzak —eta artisauak— gai izan behar du garai orotara egokitzeko eta gaur egungo gizartearen bere lekua eta zentzua aurkitzeko.

Salmentari dagokionez, azokak izan ohi dira saltzeko gune garrantzitsuenak, artisauak beren produktuak bertan saltzen baitituzte nagusiki. Irazu maiz ibiltzen da azoketan, eta saltzeaz gain, jendeak bere lana ezagutu dezan ere toki aproposa direla aipatu digu. Hala ere, artisauen salmentak azoketikiko duen menpekotasuna gehiegizkoa dela iruditzen zaio, eta horretako guneak nahiko arautuak ez daudenez, artisautzaren izenean edozer saltzen dela gainera. “Azoken antolatzaileek ez dute gehiegi kontrolatzen saltzen

den hori benetan artisautza den edo birsaltzailearena den”.

Modak ere salmentak baldintzatzen ditu, baina Karmelo Urdangarínentzat oso zaila da zenbait artisau-produktu modan jartzea: “Zein moda susta dezake sardexkak zuhaitzaren sustraiekin egiten dituen batek?”. Esandakoaren harira, gehitu du artisau gehienek gauzak egiten —eta geroz eta hobeto egiten— oso abilak badira ere, salmentari oso tarte gutxi eskaintzen diotela, eta erakunde publikoek ez dutela sekula ardura hori beregain hartu. “Ez dakit zergatik ez dagoen eusko label izendapen antzeko bat hemengo artisautzari begira!”, kexu da. Irazuk ere erakunde publikoen inplikazio eskasa jarri du mahai gaineran: “Lehengo gobernuarekin aurrerapauso batzuk emanak genituen, baina gobernu aldaketarekin egindako lana hankaz gora geratu da”.

Bestalde, bizi dugun krisiak artisautzan eraginik baduela argi daukate bai Urdangarínek eta bai Irazuk, jendeak dirurik ez duenez gehiago pentsatzen baitu zer erosi. “Kontua ez da ez dutela artisautza lana baloratzen, batzuek baloratzen dute, baina ez

dute erosteko ahalmenik”. Alta, alde baiko-  
rrik ere ikusten dio egur tailagileak egoerari:  
“Norberak bere lana gehiago findu behar du  
eta produktuen erakargarritasuna areago-  
tzen ahalegindu”. Egun zehatz batzuetan  
salmentak nahiko onak direla gaineratu du;  
esaterako, eguberrietan Donostian jartzen  
den azokan.

Krisia, ordea, mesedegarria ere bada  
hainbatentzat. Hori izan daiteke konpon-  
tzaileen kasua. Orain ez dugu horren erraz  
jotzen erostera eta horren alternatiba kasu-  
rik gehienetan konponketak egitea  
izaten da. Hernaniko Xapatin  
zapata dendara jo dugu lanbidea  
nola dagoen jakin asmoz. “Naba-  
ritu dugu aldaketa, orain jendeak  
lehenago jotzen du konponketak  
egitera erostera baino”, azaldu  
digu Mikel Olea bertako zapata-  
riak. Zazpi urte daramatza Xapati-  
nen lanean, eta baieztatu duenez,  
ordutik hona bezeroen profila ez  
da aldatu, jende berbera joaten da dendara,  
baina hori bai, maiztasun gehiagorekin.  
“Zapata berdinak behin baino gehiagotan  
ekartzen dituzte konpontzera, eta kasu  
batzuetan gainera, ganbaran zituzten zapa-  
tak dakartzate”. Kontrara, geroz eta zapata  
berri gutxiagori egiten omen dizkiete kon-  
ponketak –zola aldatu, esaterako–. Hortaz,  
gaur gaurkoz lan gehiago badute ere, egoera  
ez dela asko hobetu argi utzi nahi izan du  
Olea: “Orain egin behar ditugun konpon-  
ketak zailagoak dira, denbora gehiago behar  
dugu eta berdina kobratzen dugu”.

### Geroa bermatzeko urratsak

Aipatu moduan, etorkizun beltza ikusten  
dio Urdangarinek artisautzari erakunde  
publikoak salmentetan inplikatu ezean, bai  
behinik behin tradizionalari, eta modako  
gauzak saltzen dituztenek (arropa, bitxiak)  
etorkizun hobea aurreikusten die. Beste lan-

**“Nabaritu dugu aldaketa,  
orain jendeak lehenago  
jotzen du konponketak  
egitera erostera baino”**

**MIKEL OLEA, ZAPATARIA**

bide askok ere zailtasunak izango dituztela  
gogoratu du Urdangarinek: hamar urteren  
buruan 55.000 enpresa inguru itxiko dira  
enpresaren gidaritza hartuko duen inor ez  
izateagatik. Adierazi du egungo gazteak ez  
daudela prest sakrifikatzeko, eta ez dutela  
borondaterik haien gurasoek egindako lana-  
ri jarraipena emateko. Artisautzaren geroa  
ere horrelakoxea izango ei da: “Ez dut uste  
gazteen buruan sartzen denik artisautza lan-  
bide moduan”. Karlos Irazuk azaldu du  
zaila dela gazteak sektorerako erakartzea ofi-  
zioa ikasteko ezer arauturik ez  
dagoenean, eta norberak ahal  
duen moduan ikasi behar due-  
nean. Bere ustez, “artisautza lan-  
bideak merkatuan toki bat izango  
balu, gazteak erakartzea askoz ere  
errazagoa litzateke”.

Artisautzari eskela jarri aurretik,  
haren etorkizunaren alde lan egin  
behar dela gaineratu du Larraulgo  
tailagileak, aldaketak txertatuz. Sek-  
torea arautzea, Euskal Herrian zentroak sor-  
tzea eta artisautza oinarri duten elkarte guz-  
tiak biltzea beharrezko ikusten du. “Egun  
elkarte bakoitzak bere azokak hartzen ditu  
eta horrek epe motzean etekinak ematen  
baditu ere, epe luzera begira ez da onuraga-  
rria”. Horretarako, baina, lehenik eta behin  
artisautza bera zehaztasun handiz definitu  
behar dela gogorarazi du. “Azokak antolatu  
beharko dira, dendak ireki, baita webguneak  
sortu ere, egungo garaira egokitu behar baitu-  
gu”, diosku. Errenteriako Ereintza, Gabiltza  
eta Lur Kolektiboa artisau elkarteak ikerketa  
jarri dute martxan elkarlanean, artisautzak  
aurrera begira zein urrats eman behar dituen  
zehazteko.

Finean, denen inplikazioa beharko da  
gure herrian horren garrantzitsuak izan  
diren artisautza lanbideak, beste hainbat  
ogibideren moduan memoriaren historiara  
igaro ez daitezen. ■



**arabako bertsolari txapelketa 2011 bete!**

Antolatzailea: Babesle Nagusiak

Obra Social Fundación "la Caixa"

radio vitoria

Alfarian izena emateko: saila buleko bitxien lehenagoc: 675 70 79 71 edo araba.sustapena@bertsolakale.com



**5. KANPORAKETA**

Otsailak 26, larunbata, 20:30ean afaria, 10:30ean saioa

**ELOSUko Txoko Handian**

[www.arabakotxapelketa.org](http://www.arabakotxapelketa.org)

Gai-jartzailea: **OLATZ BAYER**

Irakli Viñaspre  
Izar Mendiguren  
Felipe Zelaieta  
Elyem Chej  
Gaizka Urtaran  
Jon Rz de Pinedo

**argia**

# Edurne Pasaban

## «Askotan eman dut buelta beldur nintzelako»

“Igo nazazu nire mendira, zure gailurretik gora...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

**Zer grina ezkutuk darama pertsona 8.000 metroko gailur bat zapaltzera?**

Nire kasuan, kirol eta mendizaletasunaz harago, askatasun eremu bat bilatzeko premiak eraman nau munduko tontorrik garaienetara. Etorkizuna idatzita neukan familia batean sortu nintzen. Ingeniaritza ikasketak egin eta etxeko enpresan lan egitea zen nire patua. Niri, ordea, beti gustatu zait nire bizitzaren jabe izatea, nire bizimodu eta bizibidea neuk hautatzea, plazera eragiten didaten xendak neuk deskubritu eta urratzea. Afizioa ofizio bihurtu eta 8.000koak igotzeko askatasun izugarria eman dit, norbere kabuz egindakoak asebetetzea biderkatzen duela sentitzeraino. Osterantzean, orotariko lanbidedun mendizaleentzat zein gizartearentzat, askatasunaren paradigma bihurtu da mendia, eguneroko errealitate zoro honi ihes egiteko modu bat.

**Hainbeste sponsor, komunikabide, presio eta intereseekin ez dakit ez duzuen errealitate zoro-agoa sortu.**

Ez dut sekula gailurra egin beharraren presiorik sentitu. Sinetsita nago babesleek ez dutela markagatik ordaintzen, arrastoarengatik baizik. Nirekin baldin badaude ez da hamalau 8.000koak igo ditudalako, euren irudia gure proiektuak ordezkatzeko eta sinbolizatzen dituen baloreekin bat eginda ikusi nahi dutelako baizik. Nik ezin dezaket gailurra agindu, bai ordea laguntasuna, esfortzua, motibazioa eta mendiaren inguruko jarrera eta jokaera bat. Horregatik da bidea helmuga baino garrantzitsuagoa. Gailurra helburu bat da, presente dagoena, baina espedizioan une jakin eta iheskor bat baino suposatzen ez duena. Bideak aldiz hasieratik amaierara eramaten zaitu eta horixe da sufritu eta gozatzen

duzuna. Komunikabideek transmititzen duzuna zabaltzen dute, eta zuk ez baduzu tontorrerako estutasunik sentitzen nekez agertuko duzu halakorik. Zer gertatzen den? Ni oso pertsona ireki eta zintzoa naizela, kazetari zenbaitekin urtean elkarrizketa asko izatearen poderioz konfiantzazko harremana sortzen dela, eta kazetaria ikusi beharrean laguna ikusten amaitzen dudala. Halako bati konfiantzan esan nion Oh Eun-Sun korearrak ez zuela Kangchenjunga zapaldu antza, eta batzuentzat ogibidea laguntasunaren gainetik dagoenez, susmoa zabaldu eta min handia eman zidan.

**Borroka horretan lumak galdu izanaren irudipena duzu?**

Izugarri nekatu nau, ajatu, gastatu. Egia da nik ere 8.000ko guztiak igotzen zituen lehen emakumea izan nahi nuela, baina ez prezio horretan. Ez duzu imajinatzen zer den etengabe jendeak kalean geratu eta korearrari buruz galdetzea. Pentsa, behin Antonio Banderasekin topo egin, eta berak ere horixe gal-

### Nortasun agiria

1973ko urriaren 1ean Tolosan sortu zen hamalau 8.000koak igo dituen lehen emakumea. Ingeniaritza tekniko industrialean lizentziatua, negozio eta giza-baliabideen kudeaketari buruzko bi master-en jabe, bere esperientzian oinarritutako hainbat klase, hitzaldi eta konferentzia ematen ditu han-hemenka. Apirilean Himalaiara itzuliko da, Everest oxigeno gabe igotzeko asmoz.





detu zidan. “Ez da posible” pentsatu nuen nire baitan, “Antonio Banderasek ere korearraren berri dauka!”. Izugarria da horrek sortzen duen neke psikologikoa. Izugarri zailtzen du etapa bat itxi eta hurrengo zabaltzea. Gainera aurrena edo bigarrena izatearen araberako interes komertzial handiak zeudela zirudien, baina niretzako ez da ezer aldatu, eta ez zen ezer aldatuko. Jokoa zegoen bakarri bihar-etziko eskola liburuetan haurrek irakurriko zuten izena zen. Baina jendeak ez zegoena ikusi nahi izan du lehia horren atzean. Horren adibide da web orri amerikar batek, Oh Eun-Sun Kangchenjunga falta zitzaiola onartu, auzia tenkatu, eta egin zidan lehen galdera. Zer galdetuko eta ea korearrari eta bere sponsorrei salaketa jarriko nien hilabete hauetan kendu zidaten lanagatik. Uste duzu segundo bat galdu dudala horretan pentsatzen? Hor ikusten da sistema eta pentsamendu amerikarraren eragina mundu zabalean.

**Elizabeth Hawley 87 urteko kazetari estatubatuarra da Himalaiako notarioa. Berak ematen ditu gailurrak ontzat. Ez al dago XXI. mendean gailurrak baieztatzeko modu zientifikoagorik?**

Egongo ez da ba! Egungo sistema arkaikoa da erabat, baina orain arte xextra handirik

egon ez denez, eta inor arduratu ez denez... Emakume horrek datu base zehatza eratu du urteetan zehar, baina ia ezer konprobatu gabe, ia-ia esandako oro hitzez hitz sinetsita. Egia esan, Himalaiara doazen gehienak kapritxoak joaten dira, sponsorrik gabe, inori ez justifikatzeko premiarik gabe, eta jende horrekin ez dago inolako arazorik. Baina gu kirolari profesionalak gara, sponsorrak, proiektuak eta herriak dauzkagu atzetik, eta erakunde batek nahitaez hartu beharko du gailurrak ontzat emateko ardura beregain. Nori dagokio, ordea? Batzuek diote Nepaleko Gobernuaren lana dela, baina nola eskatuko diogu bere herrialdea gobernatzeko gai ez den gobernu bati Himalaiako notaritza lanak beregain hartzea? Gu gara mendiaz bizi garenak, gure sponsorrekin bertara goazenak, eta gure federazioei dagokie ardura hori. Federazio korearrak, esaterako, arau zenbait argitaratu berri ditu, zeinen arabera gailurrera heltzen denak argazki jakin bat atera behar duen, GPS-arekin puntu zehatz bat seinatu... Hori da bidea. Gailurra zapaltzeak suposatzen duen ahaleginaren neurriko egiaztatze sistematik jartzen ez diren, liskarrak sortuko dira. Denok pentsatu nahi dugu pertsona onak garela, egiazaleak, inork ez duela gezurrik esaten, lapurtzen, bortxatzen, hiltzen, baina

aski da egunkaria zabaltzea denetik dagoela jabetzeko. Mendian ere halatsu, denetik dago.

### Denetik ez dakit, baina denerako sherpak daude.

Nik lagunarteko harremana daukat sherpekin. Esaterako, gure espedizioetan denak gaude maila berean, harreman parekidea dugu. Korearrek aldiz espedizio piramidalak planteatzen dituzte, eta halakoetan amildegia bezain sakona da sherpen eta gainontzekoen arteko baldintza desberdintasuna. Guk garbi daukagu hori ez dela bidea, eta lagun batek langile batek baino gehiago erraztuko dizkizula gauzak. Sherpa arrunt batek, ondo ibili den denboraldi batean, 1.200 dolar irabazi ditzake, gurekin gehixeago, eta diru horrekin urte guztian bere familia mantendu eta haurrak eskolara eramateko beste ateratzen du. Hori pribilegio handia da Nepalen. Baina tamalez, ez daukate sherpen elkarterik, mendian hilez gero hutsaren hurrena den aseguruia baizik ez daukate, espedizio batzuek izozteak izan dituen sherpa Kapmandura eraman eta erdi-botata uzten dute... Oso egoera prekariora bizi dute, eta hori ikusi eta argi dabilenak, lehen aukera probesten du Europara etortzeko. Buru gutxi duenak aldiz, patrikan diru apur bat izanik, jokoan edo zurrutean xahutzen du, eta denok dakigu zer datorren hortik. Badaude dirua pilatu eta sherpen agentziak zabaldu dituzten sherpa ohiak, baina horiei ez zaie lan-baldintzen hobekuntzarik komeni goxo-goxo baitaude euren bulegoetan. Zer nahi duzu? Erdi Aroan bizi den herri bat da Nepal. Munduko gobernu guztiak ustelak badira, hangoa are ustelagoa da. Nik ulertzen ez dudana da Everestera igotzeko baimenak 10.000 euro balio baditu eta hurrengo urterako 300 eskaeratik gora onartuta baldin badaude, non galtzen den diru hori. Nepalentzako Everest Parisentzako Eiffel Dorrea

**"Mendizaleok askotan esaten dugu mendian hil nahi dugula. Nik gure aitona bezala joan nahi dut mundutik, 90 urterekin, etxeko ohean, bilobak inguruan ditudala"**

**Zer sentitzen duzu heriotzaren aurrean?**

Berez denontzat hor dagoen mamua da, baina egia da mendizaleon egunerokoan presenteago dagoela. Ni oso beldurtia naiz, heriotzari beldurra diot, hilotz bat ikusteak izutzen nau... Oso sentimendu humanoak dira, inork ez du auto-istripu batetik ateratzen duten gorpua ikusi nahi. Baina han zaudenean, beste erremediorik ez daukazulako agian, berehala egokitzen zara. Niri gertatu zait mendian istripua izan, hiru kide hilda ikusi, beste bat eta ni bizirik geratu, eta egoista bihurtzea. Zure lagunak hilotz ikusten dituzu, eta hala ere, "hauek ez daukate zereginik eta nik hemendik atera behar dut" pentsatzen duzu. Ez zara jartzen ez histeriko ez ezer, beldurrik ere ez duzu pasatzen. Gero bai, behera heldu eta akabo, hilabeteak pasako dituzu ezin buelta emanda, baina momentuan... Mendizaleok askotan esaten dugu mendian hil nahi dugula, bertan hartu nahi dugula atseden, baina nik ez, nik ez dut heriotza hori nahi. Nik gure aitona bezala joan nahi dut mundutik, 90 urterekin, etxeko ohean, bilobak inguruan ditudala.

**Hala ere, Kangchenjungan behera, ezinaren ezinez, bertan uzteko eskatu zenien lagunei.**

Gailurra egin eta laugarren kanpamentuan pasa behar izan genuen gaua, eta behera abiatu ginenerako 48 ordu neramatzan ezer jan



**TALLERES  
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua**

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)



## AZKEN HITZA

### Lidergoa

“Lider ona izateko lan talde ona behar duzu, eta lan talde onak ez dituzte mendizale edo dena delako onenek egiten, pertsona onenek baizik. Muturreko egoeretan, leku arriskutsuetan, ordu asko pasa behar dituzunean, laguntasuna da taldearen motorra. Hori hala, liderrak helburuak argi komunikatzen asmatu behar du, bakoitzari dagokiona egoki eskatzen, lagunek bizi dutena entzuten eta enpatia handiz ulertzen, eta oroz gain, bakoitzari dagokiona onartzen eta eskertzen jakin behar du. Oro har, asko kostatzen zaigu ondokoaren lana aintzat hartzea”.

eta edan gabe. Sekulako txakalaldiak eman zidan. Orduan esan nien kideei bertan uzteko, ezin nuela gehiago. Une horietan buruak ezin hobeto funtzionatzen du, oso argi daukazu zer gertatzen ari den, nola zauden, baina gorputzak ez dizu erantzuten. Autoari gasolinarik botatzen ez diozunean bezala, motorra ondo dago, baina ez du funtzionatzen. Zer gertatu zitzaion Tolo Calafat-i? Burua primeran zebilkion, GPS posizioa emateko eskatu eta arazorik gabe ematen zigun, baina gorputzak ez zion laguntzen. Nik Kangchenjungan lagunei hori esan nienean, sekulako ezina neraman motxilan, baina era berean, bane-kien lagunek ez nindutela bertan abandonatuko. Uste dut kideek ematen dizuten segurtasuna dela mendiak duen sentsazio aberats eta garrantzitsuena.

**Zure espedizio guztiak ez dira gailurrera heldu, eta topikoa dirudien arren, apustu egingo nuke porrot horiek tontorrak bezain aberats eta garrantzitsuak izan direla.**

Frakaso guztietatik ikasten da zerbait. Askotan eman dut buelta beldur nintzelako, edo toki batzuetatik pasatzeko teknikoki behar beste prestatua ez nengoela ohartzen nintzelako. Hortaz kontziente izanik, zure beldurrrak gaingitu eta teknikoki prestatzea edo ofizioz aldatzea baizik ez zaizu geratzen. Bestalde, niretzat oso garrantzitsua izan zen Shisha Pagmatik gailurrik zapaldu gabe itzuli nintzenekoa. Horretan segi behar nuela kontentzitatea bueltatu nintzen. Gauza guztietan bezala, iristen da une bat egiten duzunari zentzu handirik bilatzen ez diozuna, ez zarena egiten duzunaz erabat bizi, lau sos ateratzeko han eta hemen lan egin behar duzuna, gailurrrak igo gabe bueltatzen zarena... Era berean, ohartzen zara bazter uzten duzunak pisua daukala, mutil-lagun batekin harreman serio

bat hasteko ez dela inoiz momentua, ez daukazula familia bat osatzeko aukerarik, zure bizitza osoa 8.000koetara fokalizatuta dagoela, eta zure buruari “merezi du?” galdetzen diozu. Oso pixkanaka joaten zara txanponaren beste aldea ikusten, baina desertu luze horretan, behin baino gehiagotan izan dut dena haizea hartzera bidaltzeko tentazioa. Nire lagunak ezkontzen ari ziren, nire anaia aita zen, eta ni Everest baino duda handiagokekin. Shishatik bueltan egin nuen mendiari dena ematearen aldeko apustua, eta egiari zor, ez naiz damutzen, orain zoriontsua naiz.

**Apirilean, Everest oxigeno gabe igotzen ahaleginduko zara. Zirkulua ixtera zoaz?**

2001ean igo nuen lehen 8.000koa izan zen Everest, eta mundu hau eta nire gorputza ezagutzen ez nituen oxigenoarekin abiatzea hobetsi nuen. Pentsa, %2 edo 3 baizik ez dira oxigenorik gabe igotzen direnak. Orain hamar urte han izan nintzenean ez genuen telefonorik, satelitea alokatzea sekulako dirutza eta burokrazia zelako, eta orain telefono mugikorraren kobertura omen dago gailurre-raino. Zentzu horretan, Everest oxigenorik gabe zapaltzea ziklo baten amaiera izango da, azken hamar urteotako aldaketen erradiografia ateratzeko aukera. Gero pentsatuko dut zer egin, zer bizimodu hartu. Mendiarekin harremanean jarraituko dut, baina puntako kirol jardunari azken puntua jartzen jakin behar dela uste dut. Ez dut bizitzeko kea saltzen ibili nahi, eta jakin-min handiko pertsona izaki, badakit aurrera egingo dudala. Orain, esaterako, konferentzia asko ematen ari naiz, Estatu Batuetatik ere deitzen didate, eta horrek ibilbide luzea daukala badakit. Bistan da, ordea, hori ere ez dela betiko, eta 60 urterekin, 25 urte lehenago egin nituen hamalau 8.000koetatik ezingo dudala bizi. ■

• Tirhas Gebre eta Akebom Hadush •

# «Korrika egiteak etorkizunera begiratzeko aukera eman digu»

Etiopiatik marka guztiak hausteko asmoz etorri ziren Akebom Hadush Tesfay eta Tirhas Gebre Enun korrikalariak, Etiopia Utopia Fundazioaren eskutik. Emaiza onenak lortu ostean, datorren urtean Euskal Herrira itzultzeko gogoz eta egunen batean kirolari profesional izatea amestuz egin dute etxera bidea.

IRATI SARASUA

Argazkiak: Ainhoa Ramiro

Oso emaitza onak lortu dituzue Euskal Herriko lasterketetan, joan den azaroko Donostiako Maratoian, esaterako.

**Tirhas Gebre:** Bai, baina hotzaren ondorioz muskuluak uzkuritu zitzaizkigun eta ez ginen gustura ibili. Jendeari harrigarria irudituko zaio Tigsti eta biok lehen eta bigarren postuetan iritsi ondoren hau esatea, baina gure helburua denbora hobeak lortzea zen. Hain lasterketa luzean parte hartzen genuen lehen aldia bazen ere, emaitza ez zen espero bezalakoa izan.

**Akebom Hadush:** Nik ez nuen lasterketa amaitzea lortu, muskuluetako arazo batengatik. 30. kilometroan lasterketa utzi eta ospitalera eraman behar izan ninduten. Maruk lau garren postua lortu zuen, nik egin behar nuen

lasterketa osoa eta ez berak, baina eguraldi txarrak gutxiago eragin zion.

Egun batzuk lehenago, Donostia-Behobia herri lasterketan ere arazoak izan zenituzten...

**A.H.:** Bai, antolatzaileekin izan genituen arazoak. Ez ziren azaldu geratuta geunden orduan, iritsi zirenean ohartu ginen oinetakoan eraman behar genuen txipa falta zitzaigula, jada berandu zen, eta gainera, gure arduradunek Donostiara itzuli behar izan zuten horien bila. Ondorioz, punta-puntako korrikalariak baino 44 minutu beranduago ekin genion lasterketari. Neskek errekorra eta mutilek emaitza paregabeak lortu arren ez ginen lehenengo postuetan helmugaratu.

Akebom Hadush Tesfay (lehenengoa ezkerretik) eta Tirhas Gebre Enun (erdian) etiopiarrekin batera, Tigsti Kiros Gebreselassiek (beste emakumezkoa) eta Maru Gebregzbhier Gidey (lehenengoa eskuinetik) ere etorri ziren Euskal Herrira korrika egitera. Beraiekin, Birhane Fanta Gebreselassie entrenatzailea.



**T.G.:** Nesken errekorra 1:08:54koa zen, duela hamabi urte Rocío Ríos asturiarrak egindakoa eta Tigstik eta biok marka hautsi genuen. Tigsti 1:08:34ko denboran iritsi zen eta ni berriz, 1:08:37an.

**A.H.:** Mutilek laugarren eta bosgarren postuak lortu genituen emaitza ofizialetan. Marka onak izan ziren, baina amaitzean triste geunden, Fundazioari huts egin geniola sentitzen baikenuen.

**Noiz hasi zineten korri egiten?**

**T.G.:** 15 urte ingururekin hasi ginen, sentiarazten ziguna asko gustatu zitzaigunez, geroztik horretan gabiltza eta ez gara damutzen. Korrikak ematen diguna ezin dugu hitzez azaldu; gainera, Europara etortzeko aukera zoragarria eman digu.

**A.H.:** Etiopia Utopia Fundazioarekin misiolari dabilen Angel Olaranen lagun bat Addis Abebako lasterketa batean egon zen, Donostiara lau korrikalari gonbidatzeko asmotan. Egun hartan lortutako emaitza, etxeko egoera eta gure izateko era hartu zituzten kontuan hautatzeko garaian eta gu izan ginen zortedunak.

**Profesionalki zer ikasi duzue Euskal Herrian?**

**A.H.:** Gogorrena hemengo klimarekin entrenamenduak egitea izan da. Etiopian eguraldi ona egiten du beti eta horretara ohituta gaudenez, Euskal Herriko eguraldi euritsu eta hotzarekin entrenamenduak egitea zaila izan da guretzat, baina hori ere ikasi dugu.

**Zer iruditu zaizue hemengo publikoa?**

**T.G.:** Goxoa eta beroa da. Jendeak asko disfrutatzen duela ikusten dugu eta horrek aurrera egiteko indarra eta gogoia eman dizkigu.

**Zer esan nahi du zuentzat Europara etortzeak?**

**T.G.:** Askok ikasi dugu Donostian, eta nik asko eskertzen diot Etiopia Utopia Fundazioari aukera eman izana. Gure herrian egindako entrenamenduek ez dute hemengo antzik, Euskal Herrian entrenatzaileek zertan dabil-tzan badakitela ikusi dugu. Gainera, Etiopian ez zitzaigun profesionalki etorkizunera begiratzea burutik pasa ere egiten. Orain gogorra izango da hemen bizitako guztia gure lagunei azaltzea.

**Desberdintasun handiak antzeman al dituzue Etiopiaren eta Euskal Herriaren artean?**

**A.H.:** Gure iritziz berdinak gara, kolorea da munduko jendea ezberdintzen duena. Argi dago kulturalki ere desberdintasun nabariak daudela, baina pixkanaka elkarren kulturen ezaugarriez ikasten ari gara. Egia esan, Europa eta Ipar Amerikako jendea Etiopiar etorri denean adierazi digu garatuagoak daudela eta guk herrialde garatu batekin aurkitzea espero genuen... eta espero genuen hori baino hobea den zerbait aurkitu dugu.

**T.G.:** Europarrak ikusi aurretik gaiztoak zirela pentsatzen genuen eta eurekin kontaktua izaten hastean ohartu gara ez direla hain txarrak. Gure herriarentzat oso garrantzitsuak dira hemengo laguntzak. Kulturen eta hizkuntzen arteko topaketa izaten da gainera eta denoi zentzu guztietan ekarpen handia egiten digu.

Hizkuntzarena nabarmenduko nuke. Etiopian, bi hizkuntza ofizial daude: amharera eta tigrinera. Guk tigrineraz hitz egiten dugu; horrez gain, Lehen Hezkuntzan ingelesa ikasten hasi ginen eta Bigarrean eskola guztiak hizkuntza horretan izan genituen. Zentzu horretan, Euskal Herriak asko harritu gaitu, hain herrialde garatua izanda hizkuntza mailan oso mugatua dago-eta.

**"Addis Abebako lasterketa batera etorri ziren eta egun hartan lortutako emaitza, etxeko egoera eta gure izateko era kontuan hartuta, gu hautatu gintuzten Donostiara korri egitera joateko"**

**AKEBOM HADUSH**



# Mungia

Liburu azoka otsailaren 8tik 27ra, Matxin Plazan

## EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

**Bizi irakurriz!**

## Tirhas Gebre Enun

"1990. urtean jaio nintzen, bost anai-arrebako familian. Aita duela urte batzuk hil zitzaigun, amak etxean egiten du lan eta nire aitaordea da bere bi lanetatik etxera dirua ekartzen duena. Korrika aritzeagatik, zementu fabrika batek duen klubeko partaide naiz, eta ondorioz, pittin bat hobeto jaten dut, garbiketarako produktuak lortu eta hilero 20 euro inguru irabazten dut. Duela urte batzuk Bartzelonan izan nintzen, baina hankako arazo bat zela-eta Tigraira (Etiopia iparraldean) itzuli behar izan nuen. Korrika egitea guretzat zoragarria den arren, gure herriaren egoera gogorra oztopena da horretarako; ez dugu korrika egiteko behar beste material eta elikadura ere ez da egokia".



**A.H:** Bai, hainbat gauzak harritu gaitu: bate-tik, emakume zein gizonak direla etxean lanean aritzen direnak. Bestetik, txakurrei eskaintzen diezuen arreta. Izugarria iruditzen zaigu, guk ez diegu kasurik egiten eta hemen maitasunez zaintzen dituzue. Azkenik, familiaren arteko harremana; pasieran elkarrekin ikustea deigarria egin zaigu.

**Gizarte harremanak ezberdinak dira han, hortaz.**

**T.G.:** Bikotekideen arteko harremana ez da hemen bezalakoa. Ezkontzen garen arren, ez gara bikotearekin kalean ibiltzen. Bakoi-tzak bere bizitza egiten du eta etxean soilik elkartzeko gara. Emakumeok gara etxeko martxa eramaten dugunak eta gizona etxera dirua ekartzen duena; harremana nahiko mugatua da. Halere, hemen bezala, Etiopian ere gauzak aldatzen ari dira eta orain maila paretsuagoan gaude gizon eta emakumeak.

**A.H.:** Nire herrian, Wukron, orokorrean kirol jardunaldiak daudenean bakarrik bil-

## Akebom Hadush Tesfay

"Wukro-n (Etiopia iparraldean) jaio nintzen arren urte gutxiren buruan aitak herrixka batean zuen lursailera joan ginen bizitzera. Aita nekazaria da, baina hamahiru urte gaixo daramatza, ia ezin du lanik egin eta amaren egoera ere ez da lan egiteko modukoa. Eskolan hasi nintzen kirola egiten, duela bi urte lasterketetan parte hartzeari ekin nion, atletismoko talde batean hartu ninduten eta horregatik, Tirhasek bezalaxe, bizimodu hobexeara joan da. Arazoa da korrika saioetan egindako lan onak ez dakarrela etxeko egoera hobetzerik. Nork daki, erritmo ona hartu eta hobetzen hasiz gero, agian familiari laguntzea lortuko dugu egunen batean. Donostian bizitako guztia asko eskertzen dugu. Hona etorri izanak konfiantza pixka bat eman digu, jendeak egin digun harrera izugarria izan baita".



tzen baginen ere, gizarte jarduerak antolatzen hasi gara, eta gehiago behar diren arren aurrerapausoak dira. Hemen gazte jendearen artean dagoen harremana han ez dugu imajinatu ere egiten, eta zentzu horretan ezin ditugu bi gizarteak konparatu. Han neskak neskokin ibiltzen dira eta mutilak mutilekin. Gainera, arratsaldeko zortzietatik aurrera ia ez dago bizitzarik kaleetan eta baldin badago, ez da jendeak pentsa dezakeen bizitza soziala...

**T.G.:** Etiopian ez dago lan aukera handirik, Wukron esaterako 3.000 gazte daude ikasketak amaitu eta lanik gabe. Guri korrika egiteak etorkizunera begiratzeko aukera eman digu, eta sentimendu hori areagotzeko.

**Zein da zuen ametsa?**

**T.G:** Gure herrira dirua eramanez eta bizi kalitatea hobetzea da guztioi gustatuko litzaigukeena. Horretaz gain, etiopiar korrikalari guztiek Olinpiar Jokoetan Etiopiako bandera ahalik eta goren igotzearekin ere amesten dugu. ■

## “Datsegit”ak eta “desatsegit”ak

**D**

atsegit”ak eta “desatsegit”ak eta aberats egiteko saiakera etsi bat, horra nire asmoa.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padron

Klixe bat da dagoneko –baina ez horregatik faltsu– herritarrok, politikan, geroz eta erabaki ahalmen gutxiago dugulakoa. Lehenago ere ez zen sekulakoa izango, baina azken boladan –eta krisi garai hauetan oraindik nabariago– inolako hauteskundeetatik hautatuak izan ez diren elkarte, erakunde, kabinete, eta gisa guztietako txiringitoek erabakitzen dute gure patua: Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak, rating agentziek... Aldi berean, ordea, geroz eta gehiago erabaki eta parte hartzeko aukera dugulako simulakroa sinestarazten digute. SMSak bidali ditzakegu nonahi aukera baten edo bestearen alde –Diego Rivasek Realen jarraitu beharko luke?–, era guztietako inkestetan parte hartu dezakegu sarean –Rubalcaba, Chacón, Blanco, López edo Bono–, erosketa egin ostean telefonoz deitzen digute erositakoa-eta ebaluatzeko, uni-bertsitateko irakasleak ebaluatu ditzakegu –egitarauan aurreikusitakoa betetzen du, 1etik 5era–, erreferendumak antolatzen dituzte plaza baten izena erabakitzeko.

Bada, ttakunkideok, guri ere ailegatu zaigu gure ordua, duela egun batzuez geroztik, ARGIAko sareko irakurleek gure artikulua –eta aldizkariko gainontzekoak– ebaluatu ditzakete. Guri ere ailegatu zaigu gure demokrazia; Jainkoak lagun gaitzala, eta ahal dela, baita jainkoek ere. Bi botoi ditu irakurleak aukeratu, erpurua gora *Datsegit* edo erpurua behera *Desatsegit*. Nire azkeneko ttakunak, esaterako, 10 datsegit eta 10 desatsegit ditu idazten ari naizen momentu honetan. Berdinke-  
ta, demokraziaren apoteosia.  
Idazleak, egoera berri honetan, hiru aukera ditugu.

Lehenengoa, soluzio liberal-klasikoa, esku ikusezinarena. Populuak iritzia eman dezan utzi inolako interbentzionismorik gabe. Bigarrena, Cristiano Ronaldorena. *Datsegit* botoiari sakatu behin eta berriro, nekaezin. Hirugarrena, autoflagelazioarena, *Desatsegit* botoia sakatu, eza-  
gun baita ondo saltzen duela

gorrotatua izateak, bazterrekoa izateak. Balorazio hauek erraz manipulatu daitezkeela agerikoa da, baina ez hori bakarrik, izan ere, gauza ez baita hain sinplea. Testua-  
ren balorazio zuzen bat egiteko, horietaz aparte, beste zenbait datu ere kontuan hartu beharko lirateke eta. Besteren artean, twitterreko retweetak eta faboritoak, Facebookeko *Atsegin dut*-ak eta iruzkinak, han-  
hemenkako estekak, e-mail mehatxuzko eta laudoriozkoak, ezkutuko zenbakia duten telefono deiak. Dudarik ez, testua bera idaztea baino askoz ere nekezagoa da hau-  
tesmahai birtualarena egitea. Baike, Narciso gizajoaren kezka-minak egundokoak zirate-  
keen aro digitalean bizi izan balitz.

Hainbesterako ikerkuntza, garapen, berrikuntza eta itxurakuntzarekin, hainbes-  
teko enpresen administrazio eta zuzendaritza-  
ko lizentziaturekin, ez dut ulertzen nola ez den sortu gurean –nik dakidala– halako-  
ak kudeatzen dituen enpresarik. Hileko kuota baten truke zure artikulua goratzera  
dedikatu lirateke, zabarkeriarik gabe, esan  
gabe doa, spam-ean erori gabe. Isil-gordeka, sareko idazle  
behinena izatera iritsiko zina-  
teke: *Atsegin dut*-ak zientoka, retweetak etengabe, bibak eta  
aupak.

Horratx ene ideia, copyright gogorrenenaz eta patentatu hertsienaz babestua, jakina. Interesduna jar dadila ARGIA-  
rekin harremanetan edo dei nazala zuzenean telefonoz; hori bai, ezkutuko zenbakirik gabe, arren. ■



Ttakunkideok, guri ere ailegatu zaigu gure ordua, ARGIAko sareko irakurleek gure artikulua –eta aldizkariko gainontzekoak– ebaluatu ditzakete. Guri ere ailegatu zaigu demokrazia; Jainkoak lagun gaitzala, eta ahal dela, baita jainkoek ere



TABAKOAREN LEGEA: ONDORIO SOZIALAK

LAKET DUT  
KARRIKAN  
EDATEA  
LAGUN ARTEAN



SEKULAKO  
GIROA  
HIRIAN!

EZ DUT LAKET  
TABERNETAN  
ORDAIN DAGOEN  
KIRATSA



KEAK  
URRINA  
ESTALTZEN  
ZIZUN!

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

## Manipulazio instituzionala

**B**ilbon urtero egiten den Gaboneta-ko Haur Parkean izan gara aurten ere Angiozartik joandako haur, guraso eta irakasle taldetxoak. Urtero antolatzen den parkeak badu nire irudikoz zer aldaturik, baina oraingoan, aurtengo pasadizo larrienari helduko diot.

Ertzaintzak eskaini du aurten tirolina egiteko aukera, baina trukean bidesari nahiko garestia ordaindu behar izan dugu bertara gerturatu garenok. “AHT bai, noski! ¡AHT sí, claro!” zioen tirolina-jokoan bertan itsatsita zegoen kartel handi batek. Kartelak zeukan letra estiloa ere AHT Elkarlanean taldeak (azpiegituren aurka lan egin duen eta egiten ari den taldea) erabili ohi duena zen. Hiritarrengan nahasmena sortzeko aukera bikaina aprobetxatu dute, irudi eta estilo bera erabiliz.

Angiozar Bergarako auzo txiki bat da eta aipatu azpiegiturak, bertako bailara hautsiko du. Ulertzekoa beraz bertakook kartela ikustean pilatutako amorrua. Joan nintzen antolatzaileek zeukaten harrera gunera eta bertan nire ezinegonia adierazi nuen. Arrazoia nuela esan zidaten.

Administrazioa ailegatu bada umeentzako den festa batean AHTren aldeko propagan-



JUDITH FERNANDEZ

da egitera, ahul dago benetan. Ziurgabetasun handiz ari dira burutzen azpiegitura erraldoia. Gizartea heldua da eta ezin dai-teke hiritarra lelotzat hartu. Azpiegituren inguruko informazio objektiboa eman ondoren, demokrazia sano batek eskatzen duen neurrian, herriari galdetzea dagokio gobernuari. Eta guztiz kontrara, umeen-

tzako jaia baliatu du trenaren aldeko propaganda instituzional pobrea egiteko.

Ziurgabetasun ekonomikoa nabarmena da, baina gizartearen babesik ez duela ere badakite jakin. Hasiak dira obrak han eta hemen eta gaur oraindik ez daki-gu zein onura ekarriko digun trenak, hasiak gara ordeka kalteak pairatzen. Baliabide ekonomikoaren xahutzea, dauzkagun lur apurren desjabetze eta desagertzea, maila kultural eta sozialean ekarriko duen eraldaketa eta guzti, hau dena, manipulazio instituzional pobreenaz lagundurik.

Gizarteak berak ere badu gertatzen ari dena irensteko gaitasun itzela. Ez dugu txintik egiten eta normaltasun osoz ari gara azpiegituren obrak eta desinformazioa bera pairatzen. Kontziente gara eta lo gaude, ala kontziente ere ez gara? ■

‘AHT bai, noski! ¡AHT sí, claro!’

zioen kartelak (...) Kartelak zeukan

letra estiloa ere AHT Elkarlanean

taldeak erabili ohi duena zen.

Hiritarrengan nahasmena sortzeko

aukera bikaina aprobetxatu dute,

irudi eta estilo bera erabiliz

TXANDAN

Edu Zelaieta



Gaurko gazteekin harremana duten heldu ugarik belaunaldi arteko amua ederki irentsia dute, zoritxarrez. Izan ere, nire ingurua *desgaztetu* ahala, gaurko gazteen kontrako komentarioak ohikoago bihurtzen hasi dira. Adinak ez du barkatzen, nonbait.

Ezin gaurkoagoak diruditen kritika latzok, ordeka, Sokratesek eta Hesiodok euren garaiko gazteei buruz jaulkitakoen oso-oso antzekoak dira (K.a. V. mendean eta VIII. mendean, hurrenez hurren): “Gaurko gazteek ez dute autoritaterik errespetatzen eta tiranoak dira” eta “ez dut inolako esperantzarik

### Gazteak

gure herriaren geroaz, gazteok jasanezinak eta ikaragarriak direlako”. Areago, 4.000 urte inguru dituzten gisa bereko testigantzak ere ba omen daude Egipton eta Babilonian.

Historiaren soka luzeak ageri duenez, adinaren poderioz bizitzaren gaineko gure ikuspegiak okertzeraz jotzen du maiz. Faltsua da, hortaz, hainbate-tan aditu beharko dudana eta dagoeneko nardatua naukan mezu apokaliptikoa: gaurko gazteak gain-behera doaz.

Gaurko gazteak, baina, atzoko eta biharkoen pare dabilta, baita urte batzuen buruan beren aurrekoei gezia botatzen ere. ■

Paula Kasares

IRAKASLEA

## Printzesa altruista heldugabeak

**N**eska batek bizimodua ziurtatzeko egin behar duena gazte oinordeko aberatsa harrapatzea da. Halaxe erantzun omen zuen Berlusconik emakume italiarren langabezia tasa handiaz galdegin zioten batean. Honezkero jarrita gaude *Il Cavaliere*ren arkeriak ikusi eta entzutera, halako lotsabide nardagarria ematen duenik nolatan izan dezaketen erakundeen buru ulertu ezinik gabiltzala.

Horretaz oroitu naiz azken astean, Nafarroako Gobernuak eskolatzeko kanpainarako prestatu duen erdarazko bideotxoak, *Hezkuntza etorkizuna* da dioena, ikustean. Ezinezkoa da hogeita lau segundotan estereotipo sexista gehiagorik sartzeari: mutiko medikugai, ingeniari aeronautikogai eta sukaldarigaien aitzinean; planeta zaintzea (Gobernuz Kanpoko Erakunderen batean musu-truk lanean seguruenik), sekulan ez handitzea eta bere burua printzesa bihurturik nahiko luketen neskatikoen agertzen dira. Berlusconik berak, Sardinia-ko etxaldean gau osoko orgia hordigarria izan eta gero, apailatutako gidoia dirudi! Horixe pentsatu nuen bideoa ikusi nuen lehendabiziko aldian. Zeinen buru-begiek jo dezakete egoki gaur egun gizon-emakumeen arteko parekotasun irizpideen gaindi hain baldarki pasatzea? Zeinen sen-onak onargarri ikusi neskatiko eta mutikoendako hain iguripen eta etorkizun desberdinak irudikatzea?

Hezkuntza Departamentuaren bideotxoak



JOSU SANTESTEBAN



Hezkuntzak

neska-mutikoak

mundu errealerako

prestatu behar

dituela dioenari

ezin sinesgarriagoa

irudituko zaio

bideo-alegoria

hori



nafar zentzudunak koleratu dituen aste berean, Nafarroako Eskola Kontseiluak Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren gaineko txostena plazaratu du eta ondoko honetan piztuarazi du argi gorria: mutikoen eskola errendimendua neskatikoena baino hagitzez eskasagoa da, nahiz eta gaitasunetan –PISAk hala dio– denak berdintsu ibili. Datu horiek ez dira berriak baina azken urtean horien gaineko kezka asaldagarri bilakatu da eta Eskola Kontseiluak Nafarroako ikastetxeetan nesken eta mutilen arteko berdintasun programak ezartzea premiazkotzat jo du. Neskatikoen eta mutikoen eskola errendimendu desberdinen funtsa ikasteko motibazioetan eta gizarte eskakizunetan datza. Lan merkatuan DBHko gradu hutsez jabetutako mutilek unibertsitatean graduatutako neskek adina irabazten segitzen duten bitartean, mutikoen eskola lanerako pizgarri eta behar txikiagoak izanen dituzte.

Hezkuntzak neska-mutikoak mundu errealerako prestatu behar dituela dioenari ezin sinesgarriagoa irudituko zaio bideo-alegoria hori. Izan ere, Gobernuarendako lan egin duen komunikazio agentziak ezin izan zukeen emakumeon lan estutasunak gordinago agertu. Inolako mezu subliminalik gabe, ageri-agerian: Nafarroako Erresumako buruzagiek neskatikoen printzesa altruista heldugabeak izatearekin amets egi-tea nahiko lukete. ■

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Naukate Sortu berriarekin. Harriturik, ez sortzaileek, aspaldi honetan zalegoa osatzera abiatu zenbaitzuek baino. Bai, zalegoa, zu bere parte sentiarazten omen zaituen gurtzerainoko egitura horren zalea. Harriturik, kirol kulturaren adierazpen zozoarena, ergelarena eta gatibuarena nola sartu den politika omen ezkertiarrenaren eremuan. Sortu alderdi berriaren aurkezpenean entzundakoak ez nituen inondik ere espero, nire buruaren motzak ez zituen talentu nahikoak tamainakoak irudikatzen. Bego. Zulotik ateratzeko palanka eta pertika azkarrak behar dira. Horien nolakoaz ari nintzen ni nire

## Harriturik

entendimendu laburrean. Eta hara non, kanoia eta bere munizioa prestatzen ari ziren inguruan eta ni *inalbis*. Urteak neramatzan gutxiagoagatik biloak galtzen, burusoilaren estrategia bazetorrela usaindu gabe. Lagunak ditut “burusoiltzen ari haiz” haserre esaten didatenak, borrokalari gogorragoen orrazkeraz paseatzen direnak. Gureak eta besteak. Gurea den bitartean txalotu, beste elastiko batez jantzia bada, txistukatu. Lan ederra dute oraingozan barberoek buruak soiltzen, eta datorren hotzarekin ez guttiago artilezko txanogileek. EHBai, eta ibilian Txindoki biltoki, gazteen abiadura zeren eta gurearen norainokoa agerian utzi digu Sortuk. ■

## BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

### Iraintzaileak aholkulari



#### I

Hara non dauden zelaian  
haritza ta lizarra,  
goian dutela izarra,  
entzunaz Jaurlaritzako  
haizearen didarra: (bis)  
“Lizardi, larre hizkuntzari  
badatorkio indarra;  
aizak, Aresti zaharra,  
euskara salbu duk eta  
moztu ezak bizarra!”. (bis)

#### II

“Badiat nik albiste bat  
zuentzako gordea,  
astintzeko hor behea;  
muinoz-muino Orhi, Aizkorri,  
Urbasa ta Gorbea. (bis)  
Diotenez gaur arteko  
asko baino hobea,  
nahiz batzuk gogor beha,  
izango da Euskararen  
Aholku Batzordea”. (bis)

#### III

Gasteiztik diote “Euskara  
bizi-bizirik bego;  
bihotz-mihietan bero.  
hala izan dadin martxan  
gabiltza egunero”. (bis)  
Hala ere ho(r)ien hitza  
beteko denik gero,  
nork lezake espero?  
Otsoei ardi larruak  
kentzen hasi ezker... (bis)

#### IV

Euskal Herrian elkarte,  
irradi, aldizkari  
ta kultur-talde ugari,  
diru gabe utzitako  
hamaika agintari, (bis)  
mesprestxuz diozuenak  
eraso euskarari,  
sailburu, lehendakari...  
Nola izan nahi duzue  
gure aholkulari? (bis)

#### V

Badakit kide guztiak  
berdinak ez direla,  
onak geunden bestela!  
Jaurlaritzak markatzen du  
hiruko erregela: (bis)  
Batzuentzat batzordea,  
besteentzat kartzela.  
Txarrena da horrela  
gauza absurduetara  
ohitzen ari garela. (bis)

#### VI

Nahiz euskara eztenkatzen  
ari den Jaurlaritza,  
ta ez mintzea den gaitza,  
euskaldunok geure ahotsa  
jaso nahian gabiltza. (bis)  
Beraz zuk, politikari,  
baduzu zer non mintza,  
hartu ezazu hitza!  
Ala hizkuntzaren defentsa  
ez al da herrigintza? (bis)

DOINUA: “Zamorako sugintza”.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

# erdiko kaiera

## Euskal liburu digitala: bi eredu eta hamaika galdera

GORKA BEREZIARTUA

Ordaindu ala doan eskaini? Euskaraz liburu digitalak zabaltzeko sortu diren bi plataformek (Gurebook eta Liburu-e) paratu dute galdera mahai gainean. Itunak ez du erantzun bat besterik eskatzen. Erantzun bat besterik ez... liburuaren sektore osoari eragingo diona.



GORKA BEREZIARTUA

“AZKENEAN!” esango zuen baten batek, kosta baitzaie euskal argitaletxeei digitalaren uretan behatz puntak bustitzea. Baina nazioarteko liburugintzak metamorfosia hasi duen honetan (duela ez asko jardun genuen gaiaz, ikusi ARGIA-ren 2.255. zenbakia), bi plataforma garrantzitsu sortu dira euskal liburu numerikoak eskaintzeko: Elkar, Erein eta Alberdania editorialek sortu zuten Gurebook eta Susa argitaletxeak Armiarma webgunean zabaldu berri duen Liburu-e egitasmoa.

Gurebook 2010eko azaroan aurkeztu zen, Durangoko Azoka ate joka zela. Liburu elektronikoen denda da funtsean, egitasmoan parte hartzen duten argitaletxeen obrak eskaintzen ditu, papereko liburuak baino apur bat merkeago eta erositako liburuak kopia digitala mugatzeko teknologiak dauzkate txertatuta. Partaide diren argitaletxeen garrantziagatik —hasierako hirurei beste batzuk batu zaizkie gero— eta euskal liburugintzan ekarri zuen jauzi kualitatiboagatik —gutxitan ikusten dira horrelako aliantzak sektorean— harrera mediatiko polita izan zuen atari berriak, baina baita zenbait kritika ere, prezioen eta kopia mugatzeko teknologien kariatara (lerrook idazten dituenak bere momentuan egindakoa hemen irakur dezakezue: <http://ttiki.com/23213>).

Isilago pasa da euskal hedabideetan Susak urte hasieran sareratu duen egitasmoa, nahiz eta eskaintzen duena ez den nolanahikoa: 249 liburu guztira, PDF eta EPUB formatuetan, kopia egiteko mugarik gabe; euskal literaturaren klasikoak batzuk; Literatura Unibertsala bilduman argitaratu ziren nazioarteko idazleen obrak besteak. Eta garrantzitsuena, dirudienez: denak doan. Baina, momentuz, nobedaderik ez.

Erronka digitalari erantzuteko bi eredu arras diferente beraz. Zalantzak berriz, mila. Negozio-ereduari lotutakoak dira momentu



**Eneko Agirrek azaldu duenez, Apple etxearen iPad-ak ekarri du benetako aldaketa liburu elektronikoaren alorrean. Ordenagailu baten funtzio guztiak folio baten tamainako tresnan biltzen ditu. Doakotasunerako joera ere indartu du iPadaren zabalpenak: “Beste produktu guztiak doan diren plataforma batean irakurriko duk. Eta liburuak ordaindu egingo al dituk?”.**

honetako galdera-ikur gehienak: inor prest egongo ote da artxibo digital bat edukitzearen truke dirurik ordaintzeko? Doan eskainiz gero, zer gertatuko da argitaletxe eta liburudendekin? Prezioa jartzekotan, zein? Erantzun eske markatzen dute atzamarrek telefono zenbakia. Beste aldean Zarauzko Garoa liburu dendako Eneko Agirre dago. Teknofilo gutxi batzuen hizketa gaia izatetik liburu digitala mundu guztiaren ahotan egotera pasa zenerako, artikulua sorta interesgarria jarria zuten gaiari buruz euren Interneteko atarian ([www.egaroa.com](http://www.egaroa.com)).

Azken hilabeteotan aurkeztu diren bi egitasmoak baloratzeko eskatu diogu. “Gurebook-ez ezin diat gehiegi hitz egin, ez bainauk erabiltzaile. Baina horrek berak esaten dik asko: zergatik ez diat erabiltzen? Ondo zegok Euskal Herriko argitaletxe batzuek bat egitea eta errealtateari aurre egiten saiatzea. Baina erabiltzaile bezala, iruditzen zaidak koladar samar ari direla”.

Hobeto baloratu du Susaren egitasmoa; ez Liburu-e bakarrik, Armiarma atari osoa ere

**iRUÑAZARRA**  
TaBERNA • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)  
T 948 22 51 67 · [info@irunazarra.es](mailto:info@irunazarra.es) · [www.irunazarra.org](http://www.irunazarra.org)

**ogiaren egia**  
*Denda berritu dugu!  
Zatoz eta bidaiatu  
iraganeko okindegi  
xarmant batera*

**Galparsoro**  
OKINDEGIA

*Antzinako ogiaren  
kabia bihurtu baitugu  
denda zahar berria*

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



## Gurebook

### ● Nork sortua?

Alberdaniak, Elkarrek eta Ereinek.

### ● Zer eskaintzen du?


Alberdania, Elkar, Erein, Pamiela, Ttartalo, Txertoa eta Arrain editorialen nobedadeak eta katalogoko liburuak.

### ● Zein preziotan?

Paperezko liburuak baino %30 merkeago.

### ● Helbidea?

[www.gurebook.com](http://www.gurebook.com)



## Liburu-e

### ● Nork sortua?

Susak.

### ● Zer eskaintzen du?

Literatura unibertsaleko obrak euskaratuta, baita euskal literaturaren klasikoak ere. Guztira 249 liburu.

### ● Zein preziotan?

Doan.

### ● Helbidea?

[www.armiarma.com/liburu-e](http://www.armiarma.com/liburu-e)

bai: urtetan gune horri esker literatur testu asko digitalizatu direla nabarmendu du. Baina baita erantzuterik ez daukan galdera luzatu ere: “Zergatik jendeak, eta gazteek bereziki, ez ditek ikusten beharrik literatura hori kontsumitzeko?”.

### Ordaindu?

Horiek atarikoak. Mokadu txikien ondotik, okelari sartu diogu hagina:

– Momentuko galdera zera duk: salduko al dituk e-bookak?

– Azken hamar urteetan nire esperientzia zein izan den ikusita, oso zail ikusten diat jendea ordaintzeko prest egotea. Nik musika Spotify-n entzuten diat, pelikulak *streaming* bidez ikusi...

Kontuan hartzeko moduko beste datu bat ere atera du hizpidera: orain arte liburuak irakurtzeko gailuez hitz egiten zela, erran nahi baita, funtzio horretarako bakarrik pentsatutako tresnez. Baina liburu elektronikoaren eztanda gertatu bada, izan da, beste aukera asko eskaintzen dituen erremintari esker.

### AZKEN-LAURDENAK

**Otsailak 19 / Tafalla**  
 17,30 - Santa Maria parroikia-aretoa  
  
 Xabier Terreros  
 Ander Fuentes "Itturi"  
 Miel Mari Elozegi "Luze"  
 Jose Luis Barberia "Zili"  
 Egoitz Gorosterrazu  
 Ainhoa Aranburu

**Otsailak 20 / Irurtzun**  
 17,30 - Kultur Etxea  
  
 Eneko Lazkoz / Iñigo Olaetxea  
 Oier Lakuntza / Bittor Elizagoien  
 Ekaitz Astiz / Irati Majuelo

**NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA**

**11**

[www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com)

**Antolatzailea:**

**Laguntzailea:**

Apple etxearen iPad-az ari da Agirre: ordenagailu baten aukera guztiak orrialde baten tamainan biltzen dituen gatzetaz (Internetarako konexioa, bideoak, audioak, ukipen-pantaila...). Daukan formatuagatik, liburu digitalen irakurleen artean harrera beroa izan du; tresna hori agertzearekin batera ugaritu da irakurleen artean liburu digitalen elkartruketa. “Eta hik hor kontsumituko dituk libururak, alegia, beste produktu guztiak doan diren plataforma batean. Aisialdiko gauza guztiak debalde dauzkak eta... libururak ordaindu egingo al dituk?”.

Arraroa litzateke, bai.


– Baina hik liburu-denda batean egiten duk lan –erantzun diogu–; dena doan izatekotan, zer etorkizun zeukak negozioak?

– Garbi zegok liburu-dendek tartaren zatirik ez daukatela hor. Inor ez duk joaten disko-denda batera MP3 bat jaistera. Informazio-iturri bezala funtzionatu zezakek, baina errentagarritasun aldetik ez dik ematen eguneroko ogia irabazteko adina.

Liburugintzak orain arte pieza finkoak eduki dituela esplikatu du Agirrek: argitaletxeak, banatzaileak, dendak... Eta bere ustez, Internetekin eskema guztia jarriko dela ipurdiz gora. Lehen editorialak ez ziren salmentaz arduratzen, lan hori Garoa bezalako en esku zegoelako. “Baina orain webguneen bidez ere saltzen dute”. Prozesua alderantziz ere egin liteke, ordea; hau da, dendak edizio lana bere gain hartzea. Garoan aztertu dute aukera hori, sektorearen barruan orain arte izan duten rola aldatu eta zeregin garrantzitsuagoa hartzeko bidea zabaltzen ahal dielako. “Imanol Epelderekin egin genian esperimentu bat, liburutxo bat, eta polita atera zuan, baina oraingoz gure lana dendan zegok batez ere. Hala ere, gazteak gaituk eta ez diagu ezer baztertzen; garrantzitsuena duk ondo pasa geniala hori egiten. Eta gauzek funtzionatzen dute hik ondo pasatzen baduk”.

### Eredu berriaren bila

Datorrenari dramatismorik gabe begiratzen dio Eneko Agirrek. “Nik zera esaten diat: lan egiten diagun mundua, literatur mundua, oso zabala duk, jendeak mendeak zeramatzak idazten. Orduan ba, hi, liburu-denda bat desagertzen baduk edo editorialak desagertzen badituk, berdin dik; desagertzen badituk, desagertu behar zutelako duk”. Bere ustez jendeak liburu digitalak kontsumitzen dituen neurrian, prezioa zerora hurbilduko da. Eszenatokia aldatu da dagoeneko. “Gustatzen bazaik, horri aurre egiok; moldatu behar



ACADIA UNIVERSITY

**“Liburu dendak edo argitaletxeak desagertzen badituk, izango duk desagertu behar zutelako”**

**ENEKO AGIRRE,  
GAROA LIBURU DENDA**

baduk, moldatu hadi; baina errealitatea errealitatea izango duk beti”.

Eredu berriak bilatzeaz ere galdetu diogu, diskogintzan Bidehuts kolektiboak edo Zea Mays taldeak egin duten bezala (ikus ARGIA-ren 2.262. zenbakia). Liburu-denden kasuan joera bat nabarmendu du: saltoki asko kultur gune bilakatzen ari direla. “Espazio biziak bihurtzen ari dituk. Denok ezagutzen ditiagu espendore modura funtzionatzen duten

dendak, eta horiek horrela funtzionatzeari utziko ziote. Askoz zerbitzu gehiago ematea izango duk joera... edo esperantza behintzat hori duk: modeloari hanka gehiago jartzea”.

Hala ere, aldaketa ez da musikan bezain azkar gertatzen ari. Paperean asko irakurtzen da, liburuak saltzen dira, eredu berrira moldatzeko denbora gehiago izango dute liburugintzan diharduten agenteek. Agirrek AEBekin konparatu du hemengo egoera, esanez, han, herri askotan, ez dagoela liburu-dendarik eta horrek berak digitalerako joera asko azkartu duela. Emaizta? Barnes & Noble bezalako kate erraldoietako dendak leku askotan ixten ari direla; aldiz, denda txiki batzuek, eredu berrietan oinarrituta, aurrera egitea lortu dute.

Dena berriz pentsatzeko tenorea da beraz: liburu digitalak ez baitira paperezko liburuen kopia binarioak bakarrik, aldaketa askoz sakonagoaren pieza baizik. Liburugintzaren mutazioa dator, editorial, denda, banatzaile, idazle eta irakurle rola berrasmatzeko unea. Krisia, hala deitu nahi bazaio. Baina krisiak, gauza jakina da, abagunea ere esan nahi du. Letra-jaten aritzeko afizioa duen orok probestu beharreko aukera. ■

# MIHILUZE

BERRITUA

*Froga berriekin gozatu eta barre egiteko*



Telebistako programa  
arrakastatsuaren  
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

*Eta beste hainbat froga dibertigarri...*

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

*... zure hizkuntza aberasteko.*



## Liburuak

KRITIKA

*Eta emakumeari sugeak esan zion.*  
Lourdes Oñederra.  
Erein, 1999.  
14,60 euro.

Hemeroteka


Aritz Galarraga

## Hamaika urte

MENDE HASIERAKO ebento literario nagusietako bat izan zen *Eta emakumeari sugeak esan zion*: irakurleen estimu azkarra (lau edizio lehen urtean), kritikarena, sari zaparrada (Beterriko Liburua, Espainiako Kritika, Euskadi, Zilarrezko sariak), gaztelanaratz berehalakoa. Joseba Gabilondok gaztigatzen gaitu: ez zen bakarrik gertaera izan, “baizik eta gizarte mailako gertakizuna, guztiok ukitzen gaituen jasokera. Hain zuzen, guztiok –askotan liburua irakurri gabe– iritzi bat izatera bultzatzen gaituen gertakaria”. Pentsa, nobela horrexekin bakarrik *Zortzi unibertso*, *zortzi idazle* kanonizatzailean sartu zuten Oñederra, Arantxa Iturbe, Castillo Suarez edota Uxue Apaolazaren aurretik, adibidez. Baina ikus dezagun, tango apokrifiko hark zioen bezala, hamaika (11) urte ez direla joaten debalde.

Haria arin jostearren, esan, eleberriak Teresa duela protagonista, senarrarekin batera W. izeneko Viena hirira, amorante ohiaren etxera egiten duen bidaia eta egonaldia, lurrikara dakarrena. Eta, Iratxe Retolazak ikusarazi bezala, bestelako lerro ohargarri askoak ugari izan arren (erbesterekin ezina eta nahia, identitatearen ausentziaren bilaketa, denborak, hizkuntzak, emetasunak, zurtasunak sorturiko mugak), emakumearen hutsunea dugu hemen gai, gailen, gizonetikiko bikote harremanen hutsaltasuna, komunikazio eza, Teresa emakumearen irudikapen gisa ere irakur daitekeen neurrian. Are urrunago joanda, garaiko iritzien arabera klixer mugatuak haustera iritsi zen Oñederra aipatu pertsonaiekin, euskal emakumearen irudi berri bat emateraino.

Ez dakit zehatz gauzak nola ibiliko ziren mende hasiera urrun hartan, baina kosta egiten zait pentsatzea matrimonioaren instituzioa zalantzan jartzeko zalantzak dituen, gizon aktibo-emakume panpina dikotomiarekin bueltaka dabilena, preziatuena birjintasuna dela dioena, nahiz kontra egiteko izan, nahiz planto esateko, euskal emakumearen irudi berriaren paradigma izan zitekeenik. Diskurtso horiek, ideia horien aurkako ideiak hamarkada bat, bi atzeragoko kontua zirela sinetsita nengoen. Edo agian arazoa da ez zutela islarik izan euskarazko literaturan Oñederra iritsi arte. Kontuak kontu, gaur egunean, eta zorionez, gaudituta ditugu halakoak, maila teorikoan bederen, arkaikoak ere iruditzen zaizkigu literaturan. Eta ez dakit eleberririk honek atera zenean izandako harrera beroa izango lukeen gaur egunean, segur aski ez. Interesgarriagoa dena, bidenabar, gauzak hamaika (makina bat) urtean bere horretan mantentzea baino. ■



## Itxaro Bordaren poemak hainbat hizkuntzatan

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreten Elkarteak argitaratzen du *Senex* aldizkaria; elkarte berak antolatzen du urtero *Idazle itzultzaileen lantegian* saioa ere, zeinaren bidez urtero euskal idazle baten lana hainbat hizkuntzatarantz itzultzen baita. Kasu honetan Itxaro Bordaren poemak aurkituko dituzu euskaraz lehenik eta

frantsesez, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz gero. Itzulpenak Haizea Parot, Manu Lopez-Gaseni, Pau Joan Hernandez eta Isaac Xubin itzultzaileek egindako lanaren fruitua dira. Horrez gain, Lopez-Gasenik lantegiaren historia ere kontatu nahi izan du aldizkariaren azken orrialdeetan. ■



*Senex 40.*  
Batzuen artean.  
EIZIE.  
113 orrialde.

## Agirre Asteasukoaren sermoien analisisa

Arantza Ozaeta Elortzaren eskutik datorriku ikerketa sozio-diskurtsibo hau. Ikergeaia, Juan Bautista Agirreren, alegia, Agirre Asteasukoaren sermoiak dira. XVIII. mendeko euskal idazle klasikoa da Agirre, baina euskal idazle klasiko askorekin gertatzen den bezala, haren lana ez da aski ezguna gaur egun. Lagunduko zuen horretan, idazlearen obrak erlijioa izatea gai nagusi, baina Ozaetak uste du sermoiok badutela aintzat hartu beharreko balio literarioak. Erretorika klasikoaren argitan hasi zen aztertzen Agirreren *Eracusal-diac* eta gerora Interakzio Sozio-diskurtsiboaren ikusmoldeetik eta metodologiatik garatu du tesia; orain Euskaltzaindiaren Iker sailean argitaratu da. ■

*Agirre Asteasukoaren Eracusal-diac.*  
Arantza Ozaeta.  
Euskaltzaindia.  
348 orrialde. 18 euro.



# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Ren fan.**  
Ama Say.  
Bonberenea Ekintzak.  
Iraupena: 39'34".  
10 euro.

## Giroak eta ehundurak aztertzen

AMA SAY beti izan da talde berezia. 1990eko hamarkadan jaio zen, noiz bestela, eta orduan AEBetan lantzen zen noisea, melodia eta intentsitatea erabat barneratu zituen, bestelako ukitua eman, euskara eta ingelesa galdatu eta emaitza bizi-bizia lortu, indartsua eta erakargarria. Taldea desegin eta urte askora agertokietara itzuli ziren eta orain kanta berriak plazaratu dituzte. Bada iraganeko indie gitarrero eta melodikoaren trazarik, baina kanta

gehienetan bestelako eremuak esplortu dituzte: teklatu, txelo eta giro bereziekin elikatutako pieza esperimentala-goak, ildo ia-industrial eta arrisku txikiagoa duen pop-rocka; eta *Monster Kaos* izeneko hit-a, new wave irudimentsua eta post-hardcorearen erritmoak bere baitan hartzen dituen. Mimatua dago, baina ez ditu nire aurreikuspenak bete. Pena!

<http://www.myspace.com/amasay>

### Gontzal Bilbao - Ama Say

## «Politikariek nahiago dute gizarte lokartua, eta jendeak nahiago du sofán geratu buruari eragin gabe»

Diskoko burdinak eta herdoilak zuen adina eta jatorria, biak, irudikatzen al ditu?

Agian bai, Meatzaldekoak gara gu eta hori nabaritzen da gure abestietan. Baina kantatzen duguna ez da Euskal Herrian bakarrik gertatzen, beste leku askotan ere bai. Politikariek nahiago dute gizarte lokartua, eta jendeak nahiago du etxeko sofán geratu buruari eragin gabe; hori ez da asko aldatzen eta salatzen dugu.

Hainbat kantatako hitzak obsesibo eta itogarriak dira. Petronorren errua al da?

Ez, Petrohorror negozio hutsa da nagusiek diru asko irabaztea besterik ez dutelako nahi. Petrohorror, Iberrola, bankuak eta horrelako enpresak politikoen eskuetan daude eta hori jasanezina da. Guztiok batu eta haien kontra borrokatu behar dugu. Haiek dira manipulazioa, ustelkeria, boterea, kutsadura; gizarte-ari dekadentzia bakarrik ekarriko diote.



"I burst forth zatitan". Ezkerraldean euskararen alde egin eta ez erretzeko irudimena lau bider biderkatu behar?

Beno, bakoitzak berea. Ezkerraldean batez ere gaztelaniaz hitz egiten da, baina poliki-poliki euskara gehiago entzuten ari da kalean.

Ama Sayk giroekin gehiago jolastuko luke eta desberdina litzateke Maite Mursego aurretik ezagutu bazenute?

Agian bai, batek daki. Agerian dago, Maite eta Lisaböko Txap, sekulako musikariak direla. Gauza asko irekita daude. Oso pozik gaude beraien kolaborazioarekin.

"Ahate artian beltzarga bat" sentitu izan zarete beti?

Ni behintzat ez. Agian kanpotik ematen du arraroak garel, baina guretzat gure musika nahiz eta pertsonala izan, beti ikusi dugu normaltasun baten barruan.

Bonberenea Ekintzak da gaur egun zuengandik hurbilen ikusten duzun aukera?

Bonberenean sekulako baloreak lantzen ari dira, jende gaztea mugitzen da altruismo hutsez, eta hori hunkigarria da. Musika zabaltzeko modu berezia da, guk gustuko duguna. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Zubererazko lehen film luzea egiteko diru-laguntza bila

MAULEKO Hebentik elkarteak *Xiberoa Zinez* kanpaina jarri du abian. Haren helburua da zubererazko lehen film luzea egiteko dirua biltzea. Peio Cachena izango da fikziozko lan horren egilea, eta aktoreen artean Jef Goihenexpe, Tittika Rekalt eta Allande Errezaret daude. Filmak 80-85 minutuko iraupena izango du, eta istorioak osaba-iloba bikote baten arteko harremana du ardatz. Aurreikusitakoa, filmak 45.000 euro inguruko aurrekontua beharko du; proiektua lagundu nahi duten herritarrek 50 euroko laguntza bonoak eros ditzakete.

Informazio gehiago: <http://hebentik.wifeo.com>.

## 1937ko bonbardaketak gogoan

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ekimenez, hegazkin frankistek 1937an egindako bonbardaketak gogoratu dituzte dokumental batek. Gernika soilik ez, orotara 33 herri bonbardatu zituzten hegazkinak, eta eraso horien lekukoak testigantza jasoko dituzte dokumentalak. Josune Ariztondo Bizkaiko Kultura diputatuak azaldu duen moduan, "Gernikako bonbardaketaren arbolak Bizkaiko bonbardaketen basoa ezagutzen lagunduko digu". Aipatu dokumentala, gertaera horiek gogoratzea helburu duen ekimen zabalago baten parte da.

## Ehun film baino gehiago emango dituzte Ikuspuntu jaialdian

OTSAILAREN 22TIK 27RA bitartean egingo da Ikuspuntu, Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdia, Iruñeko Karlos III eta Kondestablearen Civivox aretoetan. Lehiaketara aurkeztutako 737 filmetatik, hamar herrialdeetako hemezortzi film (hamabi luze eta sei labur) aukeratu dituzte antolatzaileek. Hainbat sari izango dira: film onenak, adibidez, 10.000 euro jasoko ditu, zuzendari onenak 5.500 euro eta film labur onenak 3.500 euro. Lehiaketaz kanpo beste 100 film inguru proiektatuko dituzte, horietako batzuk bi ziklo nagusitan banatuta: *Pertsonala politikoa* da, zinema feminista ardatz izango duena; eta *Tupi or not tupi*, kulturen arteko botere harremanei edo "kultur kanibalismoari" buruzkoa.

**Maite Idirin** (Ugao, Bizkaia, 1943) sopranoak jaso du 2010eko Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Oho-rezko Saria, "musikaren inguruan duen ibilbide zabalagatik".



DANI BLANCO

Ostiraleko ekitaldian beste bi sari banatu zituzten: Cendrine Lagoyeytek Euskal Kulturaren Saria jaso zuen *Usages des motifs culturels dans la construction de l'image(r) touristique. Ongi etorri, bienvenue au Pays Basque* izeneko doktoretza-tesiagatik; eta Andre Peese ur eta baso ingeniariak Euskal Kultura Sari Berezia eskuratu du.

**Dino Buzzati** italiarraren *Tartariarren basamortua* (Josu Zabaletak euskaratua), Anxel Fole galiziarren *Kriseiluaren argipean* (Josemari Nabaskues) eta Ivo Andritx jugoslaviarraren *Zubi bat Drinaren gainean* (Karlos Zabalak) liburuak plazaratu dituzte Elkarrek eta Alberdaniak, Literatura Unibertsala bildumaren barruan.

**Pernan Goñik** *Gaur* 8 aldizkarian argitaratutako komikiak bildu ditu *Alokairuan* liburuan. Pisukide izan dituen lagunen istorioak jaso ditu Goñik. Komikiak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du, eta TMEOk banatzen ditu bere salmenta puntuetatik. Gaztelaniaz ere plazaratu du, *Horror Horror* izenburupean. Liburuari buruzko informazioa eta komikietako batzuk: [www.pernangoni.com](http://www.pernangoni.com).

## ● Jon Benito idazleak *Berrian*:

«Nik uste, baldin eta poesia moldatzen bada kontatu nahi den neurrietara biziko dela. Nik poesia oso gauza zabal bezala ikusten dut, badago poesia liburuetan, baina badago beste arte espresio batzuetan ere, dela musikan, dela publizitatean... Nik toki askotan ikusten dut. Poesiarekiko oso ikuspegi hertsia baldin badugu, kondenatua dago bakartuta egotera, eta gizartetik aparte klise batzuen baitan bizitzera. Hortik askatzen badugu eta ikusten badugu beste arte espresio batzuetan txertatuta dagoela, nik uste oso bizirik dagoela.»



GAZTEZULO.COM



Honetako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Baginaren bakarriketa mundialak

**Baginaren bakarriketak** (Txalo produkzioak).

Egilea: Eve Ensler. Zuzendaria: Begoña Bilbao.

Antzezleak: Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai.

Iraupena: 75 minutu.

EVE ESLER ESTATUBATUARRAREN *The Vagina Monologues* obra antzeztua ikusi dugu Irungo Amaia KZn. Idazlearen testuak –hamabi emakumeen baginaren hizketaldiak– entzun ditugu Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai antzezleen ahotik euskaraz, euskaraz dastatu, hausnartu eta gogotik gozatu ere bai. Bi emakumeen mintzaerak eta gorputz-espresioek –ene zentzumenek sentitutakoaren arabera– publikoaren begiak, belarriak eta gorputz osoa laketu dituzte.

“Paretak mintzo balira...” esan ohi dugu. Izan ere, zer ez duten paretak entzuten! Zer ez duten ikusten! Eta baginak mintzo balira? Izan ere, zer ez duten baginek entzun eta entzuten! Zer ez dute ikusi eta ikusten! Bada, baginak mintzo dira jada, ahotik mintzo ere. Baginaren mintzo suharrak goratik –eta garaitik– jalgi dira Garmendiaren eta Garairen baitatik.

Beren bagina inoiz ikusi ez –edota orgasmorik izan ez– duten emakumearen bizipenak helarazi eta barnerazi dizkigute aktoreek bertaratutakoei. Orgasmoa sugartua izaten duten emakumeen mintzoa entzun dugu, hala nola baginaren a-hotsa behin ere entzun ez dutenena: Garmendiaren mintzoak nola irrintziak eta Garairen imintzioak hala intziriki publikoaren algarak iradoki dituzte barra-barra.

Ez dira, bada, paretak mintzo, baginak mintzo dira jada. Munduko baginak mintzatu dira Garmendia eta Garairen ahots gartsu eta garaietatik.

Baginaren bakarriketak izanagatik, baginek elka-



rizketan dihardute sarritan. Eta bagina hitza ez da euren baginak izendatzeko izen bakarra. Aitziberrek eta Ainhoak, ehundalako izenen bitartez, despotorraz gintuzten entzule-ikusleok, potorrerik gabeko zakildunok barne.

Bagina gora, bagina behera, bagina andana zabaldu izan dituzte. Paregabeko aktore pareak baginaren geruza guztiak zabaltzen ditu publikoaren aurrean. Elemenaria bagina erakutsi digu bikoteak, dozenaka potorro eta motxina tartean-tartean.

Baginaren bakarriketak munduko obren parepareko ikuskizuna da. Hots, mundiala. Honezkero ezin dugu “paretak mintzo balira...” esan, engoitik “baginak mintzo baitira”.

Munduan –gure munduan– iraultza bakarra emakumeena dela esan badugu gaur arte, bada, are ozenago esan dezakegu baginaren mintzoak entzun ondoren. Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garairen antzezpenean mundialak baitira baginaren bakarriketak. ■



● ZIENTZIA  
● IRAKURLE  
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.


Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

## Gurutzegrama



### Ezker-eskuin:

1. Lapurtu, ebatsi. Helburuari dagokiola, nahi edo behar denaren arabera. 2. **Argazkian**. ... egin, erabat ase. 3. Illon mendilerroko mendatea, Irunberriatik Nabaskozerako bidean. Aziendak gordetzeko toki itxi eta estalia. 4. Kafea hartzeko ontzi txikia. Toki horretan. 5. Dauka (alderantziz). Koipeak, gantzak. Zaintza, laguntza. 6. Azido nitrikoaren edozein gatz. Ebakia. 7. Lasterka, korrika. Nebak. 8. Eskaera. Berritzera behartu.

### Goitik behera:

1. Ohitura. 2. Sasitza. 3. Truke. Tik-..., erlojua. 4. Azken eta hirugarren bokalak. Aitzin. 5. Eguberrietako gozoki. 6. Janariak ontzeko landare usaintsu. Niobioaren sinboloa. 7. Egunaren zati ilun. Gehiegizko lanak eragindako indar gabezia. 8. Nafarroako herria. 9. Immo finkatu gabe. 10. Seinale, marka. Portu. 11. Bakoitzak bi. 12. Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakin bakoitza. 13. Krustazee mota. 14. Egoki, erara. 15. Ebaki sakona.

## Botikan

Gasteizko botika bateko jabeak dira Arantza eta Maritxu, eta bertan egin dute lan beren denbora guztian.

Gaur goizean, gizon txitxirinko bat sartu zaie eta kondoiak eskatu. Arantzak, disimulurik gabe goitik behera ongi begiratu ondoren, 42 neurriko kaxa bat eman dio:

– Barkatu, baina hau niretzat oso txikia da. Handixeagoa behar dut.

Orduan, 48 neurriko kaxa atera dio:



NOTICIASLORE

– Ez, hauek ere oso txikiak dira.

Salmahaiaren azpiko tiraderan eskua sartu eta barrualdean ongi arakatu ondoren, 54 neurriko bat aurkitu du:

– Barkatu, baina hauekin ere ez naiz moldatzen.

Orduan, biltegian zegoen ahizpari:

– Maritxu! Gizon honek 54koa baina neurri handiagoko kondoi kaxa behar du. Zer eskainiko diot?

– Etxea, janaria eta botikaren erdia!

## Sudokuak

Erraza

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 |   |   |   | 5 |   |   |   |
|   |   | 5 | 2 |   | 9 | 4 | 7 |
|   |   | 1 |   | 4 | 5 | 3 |   |
|   |   | 3 | 4 |   | 2 |   | 1 |
| 6 |   |   | 7 | 2 |   |   | 9 |
| 2 | 7 |   |   | 8 | 4 |   |   |
|   | 7 | 2 | 5 |   | 3 |   |   |
| 3 | 4 | 6 |   |   | 1 | 7 |   |
|   |   |   | 3 |   |   |   | 6 |

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 |   | 8 | 6 | 4 | 7 | 9 |   |
|   | 3 |   |   |   |   |   |   |
|   |   |   |   |   |   | 6 | 4 |
|   |   |   | 9 | 3 |   |   |   |
|   | 1 | 9 | 4 |   | 8 | 2 | 5 |
|   |   |   | 5 | 1 |   |   |   |
|   | 6 | 5 |   |   |   |   |   |
|   |   |   |   |   |   | 7 |   |
|   |   | 2 | 1 | 5 | 6 | 3 | 8 |

## Soluzioak

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 5 | 8 | 3 | 4 | 7 | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 1 | 2 | 2 | 6 | 9 | 5 |
| 4 | 6 | 5 | 8 | 5 | 2 | 7 | 1 |
| 2 | 2 | 7 | 1 | 5 | 8 | 4 | 6 |
| 6 | 1 | 4 | 7 | 3 | 2 | 8 | 5 |
| 5 | 8 | 3 | 4 | 6 | 9 | 2 | 7 |
| 7 | 2 | 1 | 6 | 9 | 4 | 5 | 3 |
| 8 | 6 | 2 | 1 | 3 | 9 | 4 | 7 |
| 4 | 3 | 9 | 8 | 7 | 5 | 6 | 1 |

Erraza

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 4 | 2 | 1 | 5 | 6 | 3 | 9 | 8 |
| 1 | 9 | 3 | 2 | 8 | 4 | 5 | 7 | 6 |
| 8 | 6 | 5 | 3 | 7 | 9 | 1 | 2 | 4 |
| 6 | 8 | 7 | 5 | 1 | 2 | 4 | 3 | 9 |
| 3 | 1 | 9 | 4 | 6 | 8 | 2 | 5 | 7 |
| 2 | 5 | 4 | 7 | 9 | 3 | 8 | 6 | 1 |
| 9 | 7 | 1 | 8 | 3 | 5 | 6 | 4 | 2 |
| 4 | 3 | 6 | 2 | 1 | 7 | 8 | 5 | 9 |
| 5 | 2 | 8 | 6 | 4 | 7 | 9 | 1 | 3 |

**Ezker-eskuin:** 1. Ostu, Egoki. 2. Hantza, Ok. 3. Isu, Ukiu. 4. Kikara, Hor. 5. Ud, Uinak, Babes. 6. Nitro, Ebakidura. 7. Atnka, Anatak. 8. Etske, Berritza. **Goitik behera:** 1. Ohikunde. 2. Sasidi. 3. Truk, Tak. 4. Uj, Aurre. 5. Turroi. 6. Ezka, Nh. 7. Gau, Neko. 8. Ihabar. 9. Koloka. 10. Ikur, Kan. 11. Bina. 12. Adar. 13. Buia. 14. Erraz. 15. Saki.



# Euskal Herriko eta munduko aktualitatearen argazkia

Oparitu **Argia** harpidetza

*independentzia astero ikusten da*

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


## Uda aldean hasiko dira banatzen Interneteko IP zenbaki berriak

WEB DOMEINU bakoitzaren atzean Interneteko Protokoloa (IP) izeneko zenbaki bat dago. Zenbaki horren egitura honakoa da: abc.def.ghi.jkl, hau da, puntuz bereizitako hiru zifretako lau zenbaki, guztira 4.000 milioi. Gero eta gehiago dira bere domeinuaren atzean arestian aipatu zenbaki finko horietako bat egotea eskatzen duten zerbitzuak; adibidez, denda birtuala edota estraneta nahi dutenek zerbitzari seguru deitzen dena antolatu behar dute eta horrek IP finkoa izatera behartzen du.

Otsailaren hasieran, Interneteko kodeak eta zenbakiak banatzen dituen erakunde ofizialak, ICANNek, egungo egitura duen azken IP sorta banatu berri zuela iragarri zuen. Uda partean beste zenbaki batzuk beharko dira Internetek sortzen dituen beharrei aurre egiteko. Zenbaki berriak, IPv6 izendatuko direnak, orain arteko IPv4 baino egitura luzeagokoak dira eta guztira 340 sestiloiz zenbaki daudenez, lasai egon gaitezke, etorkizuna ziurtatuta baitago.



## Vostok lakuak bere sekretuei eutsiko die oraingoz



OCEANOGRAPHERSCHOICE.COM

ANTARTIKAKO VOSTOK LAKUA 4.000 metroko sakoneran dago eta aspaldidanik izan da zientziaren helburu. Lakuak ez du kutsadurarik, eta zientzialariak irrikan daude haren urek zein ustekabe gordetzen duten jakiteko; agian izaki ezezagunak, agian ezer ere ez, auskalo.

Abenduaren hasieran espedizio errusiar bat zuloa egiten hasi zen, baina zulaketak aurrera egin ahala arazoak biderkatu egin ziren. Antza denez, izotzaren urtze-puntua asko aldatzen da sakondu ahala, eta uraren eta izotzaren artekoa den gel itxurako substantzia sortzen da, zulatzailearen lana ezinduz. Bertako uda amaitzean dago, eta lanak bertan behera utzi behar dira datorren abendura arte.

Ea datorren urtean zerbait gehiago esaterik dugun.

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

## Zain eta arteria artifizialak

Ikerlari estatubatuar batzuek medikuntzan erabilgarri izan daitezkeen odolera ubideak prest omen dituzte. Zain eta arteriak hartzaileen zelulekin osatzen dira, eta ezarri baino bederatzi hilabete lehenago prestatzen hasi behar dira. <http://ttiki.com/23046> (Frantsesez)

## Anestesia orokorraren mekanismoak hobeto ulertu nahian

William Morton dentistak 1846an egin zuen lehen aldiz anestesia orokor saio bat, eterra erabiliz. Orduz geroztik ikerketa ugari egin dira anestesia orokorraren pean dauden pertsonen neuronetan zer gertatzen den jakiteko. <http://ttiki.com/23047> (Gaztelaniaz)

## SOHOk bere bi milagarren kometa aurkitu du

Eguzkiaren eta Heliosferaren Behategiak (SOHO) bi milagarren kometa topatu du eta horrela, mundu osoko zientzialarien laguntzari esker, garai guztietako kometa-aurkitzaile nagusia bilakatu da. Gertaera honek garrantzi handia du, are gehiago SOHO ez zutela kometak aurkitzeko diseinatu jakinda. <http://ttiki.com/23048> (Gaztelaniaz)

### ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zozorbatuta

AMAIKALANDARIETA PARAJEA omen da Aranon. Hamaika horietatik zeini heldu eta tira? Garaikoari. Ipinabarren garaikoari, alegia. XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan ipinabarren basoetako egurraz egiten ziren ontziak hiru lanetarako ziren, batik bat bi eta hiru: bakailaoaren eta balearen arrantzarako, merkataritza garraiorako eta gudarako. Bazuten, baita, bestelako lanik ere. Zumaiaiko gaztelu-eliza nagusia lekuko: ontziak motor zituen garaiko ekonomiak uraparretaratutako burges berriek egindako bokaziozko dohaintza pareta bertan. Bietan erlijiozko margo garaikoenetan emaileak berak azaltzen dira, lotsagabe asko. Batean, bere salgaiekin batera Flandriara joan zen Juan Perez Elorriaga almirantea, han onen artean hoberenetakoa izan behar zuen margolari bati bere familia santu artean margotuarazi zion triptiko batean. Hortxe dago elizan ikusgai. Margo honen aipagarrietan lehena "irudien ugaritasuna eta aberastasuna nahiz arropa eta oihaletan azaltzen den handinahia" dela irakurri dut. Bestean, Errege Katolikoak



INAKI AGUIRRE

babesteko Portugalgo itsasontziak Gibraltargo gudan txikitu zituen Juan Martinez de Mendarok emanean, bera ere santu artean ageri da errezoan, guda hartan galdu zuen semearen alde, agian. Baita ere flandriar estilokoa omen den honoko honen azpiko aldean, 1475eko apirilaren 4ko borroka hartako itsasontziak dotore azaltzen dira, bandera, bela eta abarrez harro apainduta. Arraroak ziren, garai hartan, ontzien margoak bezala jendearen erretratuak. Ur gaineko bitsetan itsasontziak, ekonomia eta jendea.

Erregeengandik hurbilegiko bitsetan jendea zozorbatu eta, jakina, usteldu. Bitsak ezeri eusten ez dionez, itsasontziak hondoratu eta ekonomia urdindu. Eskerrak bitsik gabeko itsasoetako arrantzontziei, Zumaia aldame-neko Zestoako Ibañarrietako basoetako zurezko arte-lan horiei. Flandriako eskolakoak sona, baina geurean errietoako arotz eta zurgin haiena bai artea. Eta arrantzaleena. Bakailao gaziak eta balearen lumerak edo sailnak elementia bat lagun mantendu zuten gerora ere.

## Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, laranjondoa laranjaz beterik dugu. Batzuk oso altu daude eta hartzeko adarrak erraz apurtzen dira. Beraz, inausi beharko genuke, baina inoiz ez dugu egin, eta inork ez daki etxean noiz eta nola egiten den. Aurten inoiz baino fruitu gehiagorekin dago, eta ez genioke kalterik egin nahi. Nola egin dezakegu? Eskerrik asko. Laura Moragues (Jatabe).

Kaixo Laura. Zerorrek duzu erantzuna. Inoiz ez duzu inausi eta, ondorioz, laranjaz lepo beteta arbola. Inausten baduzu, arbolak energia asko bideratuko du inausitako adar horiek berreskuratzen, eta ondorioz laranja gutxi eta urte batzuen buruan oraingo egoera bereberean. Laranjondoa hemen ez da airoski bizi, justu samar bai, eta lehenaz gain inaustean zauriak egiten zaizkio. Bi gaitz erdik osoa egiten dute. Nire aholkua: hautsitako adarrak bakarrik inausi, zauria txukutzeko. Laranjak biltzeko adarrak ez okertu, fruta goitik biltzeko tramankuluak badira... Laranja on.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.




Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea  
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko  
Barrualdeak lorategi bihurtzea

**Luberri Basolanak, S.L.** • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala  
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241  
[luberri@luberri.biz](mailto:luberri@luberri.biz) • [www.luberri.biz](http://www.luberri.biz)

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Ama Saindua?



Ezkerrean, Joana Ama Sainduaren irudia, *Nurembergeko Kronika* edo *Liber Chronicarum* inkunablean jasoa (XV. mendearen amaiera). Esquinean, Joanaren pertsonaia Sönke Wortmann zuzendariaren *Pope Joan* (2009) filmean.

ERROMA, 855. Emakumezko batek aitasantutza katolikoa eskuratu zuen 857. urtera arte, hau da ofizialki Benedikto III.aren aldiari dagozkion urteetan. Batzuek diote Benedikto III.a bera emakumea zela eta beste batzuek 872. eta 882. urteen artean kokatzen dute Ama Sainduaren agintaldia, Joan VIII.aren aldian, alegia; beharbada, ustezko Ama Sainduak Joana zuelako izena.

Joana 822an jaio omen zen, Ingelheim am Rhein herrian, egungo Alemanian. Aita elizgizona izanik, garai-ko emakumeek debekatua zuten erlijio eta kultura heziketa jaso zuen. Ikasten jarraitu ahal izateko, kopista gisa hasi zen lanean, Johannes Anglicus gizonezko izenarekin.

Lanbideari esker Konstantinoplara, Atenasera eta Frankoen Erresumara bidaiatu ondoren, 848. urtean Erromara iritsi zen, beti ere gizonezko identitatean babestuta. Kurian Joanaren jakinduriaren berri bazuten nonbait, eta Leon IV.ak gaztea ezagutu nahi izan zuen. Berehala Aita Sainduaren nazioarteko aferen idazkari bihurtu zen. Leon IV.a hil eta gero Joana bera izendatu omen zuen

ondorengo; Benedikto III.a edo Joan VIII.a izena hartu zuen.

Handik bi urtera Joanak harreman sexualak izan zituen Saxoniako enbaxadore Lanbertorekin eta haurdun geratu zen. Prozesio baten erdian erditzearen uzkurdurak sentitzen hasi zen eta hantxe bertan, eliztarren aurrean, erditu zen. Jean de Maillyren arabera, jendetza suminduak harrika hil zuen Joana; Martin Poloniarraren testuetan, aldiz, Ama Saindua erditzeak berak hil zuen.

Istoria hau egiaztatzen duen dokumenturik ezean, elezaharren esparruan utzi behar da. Aldiz, IX. mendeko Aita Saindu sortari buruzko informazio oso zehatza gorde da eta Joana Ama Sainduaren aipamenak askoz geroagokoak dira.

Joan VIII.ak Konstantinoplako Elizarekiko izan zuen jarrera epela eta ahulezia kritikatzeko, etsaiek “Joana Ama Saindua” ezizena ipini omen zioten. Geroago, Zisma Nagusiaren garaian, hainbatek Aita Saindua kargugabetzeko eskubidea aldarrikatzeko erabili zuen istorioa. Hala, elezahar ederraren oinarrian boterea lortzeko borroka ilunak leudeke.

## Arrastoak

### Algortako Portu Zaharra aztertuko dute

ALGORTAKO Portu Zaharraren ondarea nabarmentzeko eta, oro har, Getxok itsasoarekin izan duen harremanean oinarrituta hainbat ekintza garatzeko asmoz, Getxoko Udalak Eusko Ikaskuntzara jo zuen iaz.

Bi erakundeok iritsitako akordioaren arabera, apirilera-ko Eusko Ikaskuntzak analisia eta diagnostiko egin eta proiektuaren lan ildoak proposatuko ditu. Eta ondoren, lan ildo horiek garatu eta ekintza zehatzak finkatuko dituzte.

Horrez gain, proiektuaren barruan, Getxoko itsasoari lotutako lanbide zaharrak ere aztertuko dituzte.



Algortako Portu Zaharra, Getxo, Abra eta itsasoaren arteko harremanaren ikurra. Eusko Ikaskuntzak aztertuko du.

Maiorga Ramirez

# «EAJ eta Aralar beldur dira egoera berriaren aurrean»

Tafalla, 1976. Filosofian lizentziatua EHUn. Nafarroako Eusko Alkartasuneko (EA) lehendakaria eta parlamentaria da. Ezker abertzaleak alderdi berriaren estatutuak aurkeztu dituen egunean solastatu dugu: “Sortutako aurreikuspenak bete dituzte estatutuek” esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

EAJ, EA, Aralar, EB, Alternatiba gonbidatuak izan zarete alderdi berriaren aurkezpenera. Zer inpresio jaso duzu alderdi abertzaleetako kideen artean?

EAJ eta Aralar beldur dira sortzen ari den egoera politiko berriaren aurrean. EAK hartutako konpromisoarekin, eta ezker abertzaleak guk jarritako baldintzak beteko ote dituen zalantza daukate. Guk garbi daukagu ezker abertzalea baldintzak betetzen ari dela.

Nola ikusten duzu abertzaleen esparru politikoa geroari begira?

Litekeena da abertzaleetasunaren esparruan bi aukera gauzatzea: zentro-eskuina batean, EAJ buru dela; eta beste batean, ezker-sozialdemokratiarena. EAK badaki zein den bere esparrua. Aralarrek ordea, zalantzak dauzka kokatzeko. EAJrekin akordioak ditu, Nafarroan adibidez. Aralarrek gogoeta sakona egin beharko luke bere burua kokatzeko.

Bada, esaterako, EAren eta ezker abertzalearen *Lortu arte* akordioa ezkertiar izatetik urrun dela dio Aralarrek.

Eta guk diogu, EAJk eta Aralarrek, NaBain egoteko akordio independentistak bertan behera uztea exijitzen digutela. Eta Aralarrek ez diola EAJri exijitzen PSOErekin dituen akordioak bertan behera uztea: hala nola pentsioen eta lan erreformak. Aralarrek bizi dituen zorabioak zuzendu behar ditu lehenbailehen.





**Demagun alderdi berria (Sortu) legeztatua dela. Nolako egoera politikoa aurreikusten duzu?**

Batetik, espainiar nazionalismoak ez luke euskal instituzioen jabetza izango. Bestetik, egoera berriak abertzale guztiok bide bateratua urratzea ahalbidetu beharko luke.

**EAJ eta ezker abertzalearen alderdi berria NaBain elkarrekin ikusten dituzu?**

Bai. Zergatik ez? Gure ustez aukera elektoral guztiek zabalik izan behar dute. Halere, gakoa ez dago hor. Gakoa alderdi abertzale guztiok norabide berean politika egiteko nahia agertzea da. Ezker abertzalea legala izanez gero, bide baketsuetatik joanez gero, ez luke elkarren arteko lanetan oztoporik izan behar. NaBai, besteak beste, Aralarrek pauso hori eman zue-nean sortu zen. Orain, ezker aber-

tzaleak ere pauso hori eman due-nean zergatik ez?

**ETA amaitu eta berehala, alderdi abertzale guztiak NaBain biltzea kimera ote den pentsa liteke.**

Nondik eta nola pentsatzen duzun. Aldaketa politikoa gauzatu nahi bada, nafar abertzaleok –gizartearen ehuneko 30 garena kontuan harturik– lehen pausoa xede horretan eman behar dugu. EAK argi du hori dela helburua Nafarroan, eta alderdien arteko lehiak gaintitu behar ditugula boto guztiak aukera berean jartzeko. Hori ikusten ez duenak ez du aldaketa politikorako aukera lehenesten. Pauso hori lehenetsiz gero, botoen %30 hori norabide berean eramateko estrategiak zehaztuko lirateke. EAJ zintzoa balitz, ez luke inongo trabarik ezarri behar, baina trabak jartzen ditu eta guk galdetzen dugu: EAJk aldaketa

**“Alderdien arteko lehiak gaintitu behar ditugu boto guztiak aukera berean jartzeko. Hori ikusten ez duenak ez du aldaketa politikorako aukera lehenesten”.**

politikoa nahi al du? Ezker abertzaleari betoa jartzea ez al da alderdikerietan aritzea? Zergatik kanporatu nahi du EA NaBaitik?

**Zer aldatu da esparru politikoan NaBai sortu zenetik, orain ezker abertzalea NaBain egon dadin?**

Ezker abertzaleak bide baketsu eta demokratikoetatik joateko hartu duen jarrera. Konpromiso hori hartu ez balu EAK ez zuen inolako akordiorik sinatuko.

**Lortu arte eta Euskal Herria ezkerretik akordioak NaBairen kontra doazela diote EAJk eta Aralarrek.**

Bada, oraindik ere ez dute esan zergatik. Bi akordioak bateragarriak dira NaBairekin, baina Aralarrek eta EAJk bateraezintasuna darabilte NaBai kanpo uzteko. *Lortu arte* ez da bateragarria NaBairekin, eta EAJk eta PSOEk dituzten akordioak bai?

**Aralarrek dioenez, egoera berrian lehenik eremu politikoan lehiatu behar da, hasieran ezker abertzaleak hobe duela bakarka lehiatzea.**

Hori noiz eta nork esaten duen. Aintzane Ezenarrori entzun diot orain gutxi NaBaiko ateak irekita daudela ezker abertzalearentzat, eta lehenago Patxi Zabaletari ere bai. Baina honek diskurtsoa aldatu du berriki. Batzuek ilargi fasearen arabera aldatzen dituzte diskurtsoak. Guretzat argi dago: NaBai da aurreikusten dugun hauteskundeetarako aukera bakarra. Eta baldintza ematen badira, ezker abertzaleak bat egitea espero dugu. Hori gogoe-ta bateratu baten ondorioz etorri behar luke, baina EAJk eta Aralarrek ez dute gurekin bilerarik egin nahi, eta hori oso kezagarria da

**EA NaBain aurkeztuko da?**

EArek aukera NaBai da, bakar-bakarra. Gure Biltzar Nazionalak hori ebatzi du, baita Nafarroako Asanbleak ere. NaBai da aldaketarako eragile politiko nagusia, baita aldaketa politikoa ekar dezakeen

**SOLOZABAL**

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)



Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97 lua@luark.com

bakarra. NaBai aldaketa gauzatzeko sortu zen.

EAJk, Aralarrek eta independentee, antza denez EA ez dute NaBain egoki ikusten.

Beraiek hori diote, baina EAK ez du hori onartu. NaBaik alderdi bakoitzaren berezko dinamikak errespetatu behar ditu. Euren jarrera oso kaltegarria da. EAK eta ezker abertzaleak bide politiko baketsuetatik independentziara bidean akordioak izatea kontrajarriak direlakoan, lortu ditugun akordioak bertan behera uzteko eskatzea xantaia onartezina da. Nafarroako aber-

**"Batzuek ilargi fasearen arabera aldatzen dituzte diskurtsoak. Guretzat NaBai da aukera bakarra"**

tzalearen gehiengoak argi dauka aldaketa politikoa gauzatzeko ezin dela holako exijentziarik ezarri. EA koaliziotik at uzteak aldaketa politikoari uko egiteko euren nahia agertu du. Nafar gizarteak ez luke hori ulertuko.

**Ba al dago konponezin hori bideratzeko modurik edota betarik?**

Guk bilera bat eskatu berri dugu, baina susmoa dugu EAJk eta Aralarrek adostu dutela gu koaliziotik kanpo uztea.

**Orduan?**

Gu azken minutura arte saiatuko gara, hori baita Nafarroan aldaketa politikoa gauzatzeko modu bakarra.

EAK Eusko Legebiltzarrean iraganean izan zuen ordezkari kopuru bera balu berdin jokatu luke ezker abertzalearekiko? EA eta ezker abertzalea aldeni izan dira orain arte.

Ez nago ados. EAK herri erakuntzaren inguruan idatzitako txosten guztietan ageri da ezker abertzalearen helburuekin bat egiten duela. Orain argitu da zergatik lortu dugun ezker abertzalea gure printzipioetara etortzea.

# 3. ekar ilustrazio eta ipuin lehiaketa

oinarriak: [www.elkar.com-en](http://www.elkar.com-en) eta  
elkar sareko liburu denda guztietan





**“Ezker abertzalea mugitu da eta EAk apustu egin du mugimendua horren bidean, baita gure herriaren historian pauso garrantzitsua delako mugitu ere”.**

Hori ikusi nahi ez duenak ez du ikusiko, noski. Ezker abertzalea mugitu da eta EAk apustua egin du mugimendu horren bidean, baita mugitu ere gure herriaren historian pauso garrantzitsua delako. EA zintzo jokatzen ari da bakearen bidean, uneon alderdi abertzale batek hori lehenetsi behar du eta daukan gutzia eman.

EA prest dago legez kanpo segi lezakeen ezker abertzalearen espresioarekin EAEko hauteskundeetan elkarrekin joateko?

EA Euskal Herriaren independentziaren bidean arriskuak hartzeko prest dago. Egoera hori ematen bada, EAk aztertuko du zein den bide egokiena pauso sendoak emateko.

Euskal gatazka deitua desagertu ahala, abertzaleen arteko konpenezina azaleratuz doala dirudi.

Baliteke. Nazioarte mailako hainbat eragileekin jardun dugunean euskal arazoak zur eta lur uzten ditu. Hau da, abertzaleok ez bagara kapaz Euskal

Herriaren aldeko proiektu bateratua diseinatze-ko, ez dugu lortuko espainiar nazionalismoak gure herri proiektua onartzea. Espainolak bi kontuez elikatu dira orain arte: ETaren ekin-tza armatuez batetik; aitzakia ezin hobea abertzaleen helburuak oztopatzeko, batez ere Nafarroan. Bestetik, euskal abertzaleen atomizazioa dago: EAJ, Aralar, EA, ezker abertzalea, Hamaikabat... Hori konpontzen ez badugu, ez dugu herri hau aurrera aterako.

**Ez dago lasaitasunik, ez girorik.**

Egia da. Gure herrian urtero daude hauteskundeak: aurten maiatzean. Datorren urtean martxoan. Hurrengoan EAEkoak eta gero Europakoak. Hauteskundeek sortzen duten egoera zail hori gainditu behar dugu eta horretarako akordio estrategikoak oso garrantzizkoak dira. Horiak ez dira hauteskondeei begira soilik egiten. Horretan EA argi eta fin ari da.

**“Abertzaleon arteko lankidetzaz bultzatu nahi bada, eskuzabaltasuna nahitaezkoa da, uko egin behar zaio proiektuen jabetzeari”**

**NaBaiko independenteak hizpide. Nor izanen da EAren hautagaia Iruñeko Udalean?**

Iruñeko udal zerrendaburua aukeratzea EAri dagokio. Uxue Barkos hautagaia izatea, independente moduan, proposatu diegu NaBaiko beste kideei.

**Uxue Barkos ez omen dago ados EAren estrategiarekin.**

Uxue Barkos independentea da. Ez dakit norekin dagoen ados,

baina argi daukat independente gisa beti prest egon dela NaBairen izenean aurkezteko. Guk argi daukagu, abertzaleon arteko lankidetzaz bultzatu nahi bada, eskuzabaltasuna nahitaezkoa dela eta proiektuen jabetzeari uko egin behar zaiola. Alderdiek galdera honi erantzun behar diote: zein da erabaki egokiena koalizioak zehazten duen helburu nagusiarekin bat egiteko? Batzuen galdera ordea, haxe da: zer egin behar dut zabaldu den aukera politikoa nire alderdiaren alde probesteko?

**EAJ, Aralarrek eta independentek osatutako NaBaik Uxue Barkos aurkezten badu?**

Hori ez da NaBai izan inoiz, ezta izango ere.

(...)

NaBain EA ez badago, ez dela hautagai izango esan du Uxue Barkosek.

**Independenteak nola ikusten dituzu oro har?**

NaBairen inguruan ez da independente mota bakarra bildu. Ez daki-gu zenbat diren independenteak. Hainbat independente kargu publiko izateko prest izan dira eta batzuk hala dira. Independentek aldi-lan leku batean kokatzen dira, eta aldi-lan beste batean. Ezker abertzaleak ez duela NaBain lekuri esan dute batzuek, EAJren eta Aralarren posizioekin bat eginez, baina nik dakidanez, beste batzuek ez dute horrekin bat egiten.

**Nola baloratzen duzue Hamaikabat alderdiaren rola uneon?**

Indar sinbolikoa da eta NaBain independente bezala jokatu nahi dute. Hori kontraesan izugarri da. Alderdi bateko kidea bazara, ez zara independente. Ez dakit nola eusten dioten aporia horri.

**Xabier Agirre jeltzaleak EAren ekarpen onena desagertzea litzatekeela esan du berriki.**

Yolanda Barcinari ere gustatuko litzaioke. ■

**arcia.com** Alderdi berriaz, bake prozesuaz eta NaBaik Nafar Parlamentuan egindako lanaz.

# CAMINOS


3D estrategia jolasa



**Noruntz eta nola iritsi?**

**Zein da bidea?**

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN  
HARPIDEDUNENTZAT  
24€

Ludi**toys**

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | [info@luditoys.com](mailto:info@luditoys.com)

Ignasi Vila

# «Arazo politikoa da haurra hizkuntza batean edo bestean eskolatzea»

Ez da Gasteizen izan zaharra, EHUren Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean, *Hezkuntza eta Hizkuntza Politika* mintegia zuzentzen. Norberaren hizkuntzan eskolatzearen inguruan hasi da hizketan, eta zubia egin du egun bizi dugun egoeraraino. Besteak beste, gure eguneroko neke eta penak arintzeko aldarria egin du.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

IGNASI VILA MENDIBURU (Donostia, 1950), psikologoa da “eta Vigotskyarra”, hots, hizkuntzek egiten gaituztela dio, errusiarrak dioen moduan: “Izaki linguistiko bezala baino ez gara bizi, eta izaki linguistiko baldin bagara, hizkuntzatik eginak baldin bagara, agerikoa da hizkuntza –erran nahi baita, hizkuntzak–, identitate iturri oso inportantea dela”. Abiapuntu horixe gogoan abiatu da hizketan...

***Hezkuntza eta Hizkuntza politika*, zuzendu duzun mintegiaren izena. Historiara jo duzu lehenengo...**

Gogoeta, beti bat eta bera izan delako. Alegia, zergatik ez den jendea bere hizkuntzan eskolatuko. Horixe gakoa. Konparazio baterako, har dezagun Comenius, har dezagun Vives, Errenazimendu garaian, hezkuntza latinen bidez egiten zen sasoia. Comeniusek esango du ez dagoela ergelkeria handiagorik, inori atzerriko hizkuntzan irakastea baino. Pentsamendu horrek gaurdaino iraun du, nahiz eta gaur egun eztabaidagarri izan. Erran nahi baita, sen onari lotutako pentsamendua dela. Har dezagun beste autore bat, esan nahi dudana ongi uler dezagun. Historian zehar garrantzi handieneko egilea izango da, seguru, hau da,



**“Kontua da euskara berezko hizkuntzat hartzen dutenek gaztelania berezko hizkuntzat hartzen dutenen hizkuntza eskubide berberak dituztela”.**

Unesco. Ez naiz erakundeaz ari, Unescoren batzordeak 1951n Parisen eratutako mintegiaz baizik, gai horretaz jarduteko.

**Artean, Bigarren Mundu Gerra amaitu berritan...**

Garaia ere halakoxea zen, bai: mundua deskolonizatzen hasia,

herrialde berriak azaltzen hantemen, estatu sortu berriak... eta denak ere, hezkuntzari dagokionean –eta, bistan denez, hizkuntzari dagokionean–, erabakiak hartu beharrean daudenak. Mintegiaren ondorioa, berriz, zalantzarik gabekoa da: haurrari gerta lekiokkeen gauzarik ederrena da berak dakien

hizkuntzan eskolatua izatea. Beraz, nor bere hizkuntzan eskolatzea hatsarre pedagogiko bihurtuko da harrezkero. Hatsarre hori laster bereganatuko dute 60ko hamarkadan nazio-estatuak azpiratuak dituzten gutxiengoek. Estatuak, izan ere, beren hizkuntza derrigor-tzen dute, ez edozein hizkuntza, hizkuntza ofizial halako bat baizik; balizko identitate nazional komun, bakar eta homogeneo bat ematen duen hizkuntza, hain zuzen. Eta, garai horretan gertatuko da eskola katalanaren sorrera, ikastolena, edo, gerora, gisako beste eskola batzuen Galesen, Britainian, Okzitanian edo bestetan, non, hezkuntzan, bertako hizkuntzen presentzia errebendikatzen den, Unescoren hatsarre pedagogiko hura aintzat harturik.

**Hatsarre pedagogiko horren bestelako irakurketa egin duzu zuk Gasteizko mintegian...**

Bai, Unescoren mintegian parte hartu zutenek, batzorde hark idatzi zituen txostenak arretaz irakurri, eta berealdiko garrantzia duen alderdi bat ageri delako. Norberaren hizkuntzan –“ama hizkuntza” terminoa darabilte–, hezi behar dela esanagatik ere, ikusten da munduan, edo erran delako lurralde batean, hizkuntza asko direla elkarren ondoan, hizkuntza ezberdinetako hiztunak. Eta ehun hizkuntza –edo, eman dezagun, berrehun eta berrogeita hamar, Indiaren kasuan–, erabiltzen dituzten hiztunentzako hezkuntza sistema eratzea, zoramena da. Unescoren batzordeak esan zuen garrantzizkoa zela hizkuntza nazional bat izatea, estatuaren integritatearen berme, haren gainean eraiki behar zutela etorkizuna estatuak eta, hortaz, erran delako ama hizkuntzaren bidezko irakaskuntza eskolako lehenengo urteetara

murritzitu behar dela, horren ondotik hurrek hizkuntza nazional horretarako trantsizioa xamur egin dezaten. Hizkuntza nazional hori, haien irudiko, estatu bat beraren mende bizi diren pertsona guztien hizkuntza izango da.

**Eta, orduan, ama hizkuntzan irakasteko dioen hatsarre pedagogikoa?**

Historikoki –eta jende askok teman eta setan horrela defendatu baldin badu ere, gutxiengo linguistikoei, oroz gain–, ama hizkuntzan irakasteko dioen hatsarre pedagogikoa –“Unescok ezarritakoa!”, esango zuten, horrek zer edo zer esan nahi zuelakoan–, bada, txostena zorrotz irakurri eta jabetzen gara Unescok ez duela

**“D ereduan eskolatutako haurrak badaki euskaraz eskola aroa bukatzen duenean. Beste kontu bat da nahiko genukeen ezagutza maila duen”**

horrelakorik esaten: trantsizioaz ari da, ama hizkuntzatik bestera aldatzeko urratsa eman beharraz. Hizkuntza nazionala du helburu. Gaur egun, haurrari zein hizkuntzatan erakutsi behar zaion delako galdera hartu eta, teorian, eztabaida pedagogiko, psikologiko, linguistikoa eta bestelako guztiak gorabehera, adituak bat gatoz: ez da ama hizkuntza kontua. Are gehiago, ez dago haurra bigarren hizkuntza batean eskolatu ezinik, jakina baita horrek ez diola batere galerarik ekarriko: haurra hizkuntza batean edo bestean eskolatu, arazoa politikoa da, batik bat. Beraz, hizkuntza kontu hori politikaren arloan kokatu behar da, eta han jardun. Hobe da hori, eta ez

## Gurasoen larritasun identitarioa

Haurrek euskaraz ikasten dute, baina gaztelaniaz komunikatzen dira, ez direlako hizkuntzaren aldeko militanteak. Hizkuntzaren bidez bizi dira, eroso bizi ere, haientzat gizarte harremana delako pertintea, huraxe garapen iturria. Horrek ez du erakusten gizarte mailan euskarak bizi duen egoera eskasa besterik. Hor dago koska, horrek kezkatzen nau ni. Hortik eratortzen den galdera ez da asmatzen zaila: zein hizkuntza politika gauzatu behar dira euskararen gizarte egoera eskasa –eta katalanarena, nahiz eta diferentea izan–, euskararen biziraupena, ziurtatzeko. Aitaren edo amaren larritasuna ez da “Zer gertatuko zaie nire seme-alabei?”, ez bada “Zein hizkuntzatan hitz egingo dute?”. Larritasun linguistikoa da, “hizkuntzen mina”, Katalanian esan ohi dugunez, Jesus Tusonen liburu ezagunaren titulutik. Hizkuntzen mina: “Nirea den hori, haren bidez naizen hau... geroan ere izango den bermerik ez dut... Gure seme-alabak –euskaraz, edo katalanez eskolatu arren–, erosoago bizi dira gaztelaniaz, eta ez euskaraz, ez katalanez”. Larritasun identitarioa da, komunitarioa.

pedagogiara, psikologiara eta linguistikara jo etengabe.

**Eta zientzia horiek...**

Zaude. Ez dago ukatzerik psikopedagogiak, esaterako, hizkuntzen hezkuntza trataeraren inguruko ohar jakingarriak egiten lagunduko ez digunik. Akabo, bada! Izan ere, eztabaidatu beharreko lehenengo

**Babeslea: Errenteriako Udala**



Tel.: 943 44 96 13  
euskara@errenteria.net



**ERRETERIAKO UDALA**



**UDAL EUSKALTEGIA**

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria  
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net



“Hein berean dira identitario euskara zein gaztelania”.

gauza izango da hizkuntza jakin batean eskolaratzeaz ari garenean, eskolaumea hizkuntza hartako partaide sentitzen den ala ez jakitea. Jakitea komeniko da, bederen. Hizkuntzak hiltun komunitateen parte dira. Hizkuntzarik ez dago abstraktuan. Tresna dira, erreminta, komunitate barruko pertsonen arteko harremana kohesionatzen dute. Beraz, ez da berdin gaztelania hiltunen komunitatea, edo euskara hiltunena. Besteak beste, gaztelania hiltunen komunitateak 300 milioi pertsona dituelako, bariante mordoak, kultur eta instituzio egiturak ehunka, erakundeen laguntzak era guztietakoak, eta abar. Euskararen komunitateak, aldiz, lurralde mugatua du, hiltun kopuru mugatua —eta gainera, beste hizkuntza batzuekin elkarbizi dira—, erakundeen laguntzak baditu, bai, baina egoera, berdintasunezkoa ordeztu, ezberdintasunezkoa da, argi eta garbi. Halarik ere, gaztelania, euskara —eta frantsesa eta gainerakoak—, ez dira haiek hitz egiten dituzten hizkuntza komunitateen identitate zeinu baizik. Bestela esanda, euskara bezain identitarioa da gaztelania.

**Gaztelaniaz mintzo denak ez du horrelakorik sentitzen...**

Bada, gaztelania hizkuntza unibertsala izanagatik ere, 300 milioi hiltunek erabiliagatik ere, euskara bezain identitarioa da, hein berean dira identitario. Horrek esan nahi

### Murgiltze politikoa

Murgiltze sistema baliatzeak argudio politikoak ditu, lehenik eta behin. Ondoren datoz psikologiaren arrazoiak. Politikak erabaki du murgiltzea. Psikologiak esango du ez dela berdin katalan hiltuna katalanez eskolatzea, edota gaztelania, errumaniera, edo arabiera hitz egiten duena. Psikologiaren lana izango da, haur guztiak katalanez eskolatu eta egonagatik ere, haien eboluzioa begiratzea, eskola arrakasta izan dezaten. Ez da berdin katalanez irakastea katalan hiltunari, gaztelania hiltunari, edo kroazieraz hitz egiten duenari. Hor bai, psikologia, pedagogia eta beste sartuko dira tartean, baina, aukera, betiere, politikoa da.

du, gaztelaniaz mintzo den Guadalarako (Mexiko) hiltunak, edota Fuentealbillakoak (Albacete, Espainia), ez duela batere ziurgabetasunik etorkizunari dagokionean. Hark badaki bere bilobek askatasunez hautatzeko aukera izango dutela, eta mexikar, espainiar edo dena delakoak izango direla, lasai-lasai. Euskaldun komunitatearen arazoa da, aldiz, ez dakiela, ziur, bere bilobek gisako aukerarik izango duten. Alegia, ez dut esan nahi biloba horiek nahitaez euskaldun izan behar dutenik, askatasunez hautatzeko aukera eduki baino. Eta euskaldun izateko, nahiz ez izateko, askatasunez hautatzeko aukera edukitzeakotan, nahitaezko da euskarak bizirautea. Eta, beraz, horretaz ari gara hezkuntza eta hizkuntza politika hezkuntzan aztertzen ditugunean. Alegia, zenbateraino baliatu behar dugu hezkuntzan hizkuntza politika bat, halako hizkuntza baten bizirautea bermatuko duena. Erran delako hizkuntza horretako komunitatearen eskubideak defendatzen ari da-eta, bizirauteko, askatasunez aukeratu duen kultur pertinenzia, bilobek ere izan dezaten ari da lanean. Kontua ez da euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza izatea —edo katalana Herrialde Katalanetako—, ez. Kontua da euskara berezko hizkuntzat hartzen dutenek —eta, orobat, katalana berezko hizkuntzat hartzen dutenek—, gaztelania berezko hizkuntzat hartzen dutenen hizkuntza eskubide berberak dituztela. Horixe da gakoa. Jakina, euskarak inon bizirautekotan Euskal Herrian biziraungo du. Eta, gisa berean, katalanak Herrialde Katalanetan. Ez honantzago, ez harantzago... Hizkuntza gutxituei buruzko hizkuntza politikaz ari garenean, ez gara esaten ari, besterik gabe, zenbait jende euskara duela berezko hizkuntza. Hori ez ezik, botere banaketa berria aldarrikatzen ari gara, hezkuntzatik. Hizkuntzei dagokienean, erran delako hizkuntza horren hiltunek kultur ziurtasuna izan behar dute, hots, beren oinordek askatasunez hautatzeko testuingurua izango dutela, benetan. Berezko hizkuntza

gaztelania duen pertsonak bezala, hein berean.

**Posible da zuk aipatu duzun botere banaketa berri hori?**

Jakina posible dena! Katalunian erabaki genuenean bezala! Eredu bat hobetsi genuen, hizkuntza bat bakarra, behikularra, katalana. Horixe da katalana berezko hizkuntzatzat duen jendeak beraien hizkuntzak biziraungo duen esperantza izateko modu bakarra, alegia, bertako guztiek jakingo dutela katalanez; besterik da erabiliko duten ala ez. Jende asko dago katalanez badakiena, baina –arrazoia zeinahi dela ere–, hura ez baina gaztelania erabiltzen duena, dela familian, dela lagunartean. Edonola ere, Katalunian bizi baldin bagara, katalanez jakite horrek esan nahi du ni inori katalanez mintzatzen natzaionean, nire solaskideak ulertu egin beharko didala eta dagokion moduan erantzun.

**Zer gertatzen da haurrak eskolan bigarren hizkuntza bat ikasi behar duelarik, eskola aroa bukatu eta hizkuntza hartan hitz egiteko gai ez denean?**

Hori ez da egia, gezurra baizik, gezurra zuzen-zuzenean. Eta, horretarako frogak ditut. Zorionez, hor dira erakundeek egiten dituzten ebaluazioak. Aski berria da gurean ebaluazioaren kultura, baina sartua da, behintzat. 90eko hamarkadatik hona erakundeek ebaluatu egiten dute. Eta izan europar erakundeek, izan estatuarenak, izan erkidegoenak... zuk diozun hori gezurra dela frogatzen dute. Adibidez, frogek diote katalan sistemak Madrilekoak –edo Andaluziakoak–, sustatzen duen gaztelaniaren ezagutza bera sustatzen duela. Are gehiago, gaztelaniaren ezagutzaren parekoa sustatzen duela katalanarena. EAEn, berdin. Edota, azak ontzeko, zuen erkidegoko ikasleen gaztelania ezagutza, hein batean, estatuko herrialde elebakar batzuetakoa baino handiagoa dela. Euskararen ezagutzak, berriz, gaztelaniarenaren parekoa da. Gaur egun, EAEn –eta Euskal Herrian–, esanak esan, D ereduaren eskolatutako haurrak badaki euskaraz eskola aroa bukatzen duenean.

## Pikutara! Pikutara?

Badut lagun bat, herri bateko hizkuntza zerbitzuetako buru dena. Eguna joan, eguna etorri, bateko tabernan besteko jatetxean, hau itzultzen, hura egokitzen, borrokan, katalana bateko menuetan eta besteko iragarkian ager dadin. “Nahiago nuke Badajozen (Espainia) sortu izan banintz, ez nuke eguna borrokan eman beharrik izango!”. Berdintsu dio Jose Maria Nadalek, Pep Nadalek: “Beharbada, oker ari gara. Beharbada, hobe genuke, kultur larritasun hau etengabe sufritzen ibili beharrean, dena pikutara bidali, ahaztu, datorrena datorrela egin, eta kito!”. Kafe osteko elkarriketetan sarri ageri dira horrelakoak, nekatuta gaudenean kanporatzen ditugu, edo egurra eman digutenean. Nik Will Kymlicka ekarriko nuke akordura. *Ciudadanía multicultural* liburuan dio ez duela ezagutzen kultur identitate bat, edo hizkuntzazkoa, mundutik desagertu denik, hizkuntza gutxituek nozitu dituzten zapalkuntza urte ondraduak gorabehera. Hizkuntza ezberdin bat hitz egiten zuten komunitateei egin zaizkien piztikeria guztiak egin arren –hizkuntza homogeen eta kohesionatzaile baten izenean beti, jakina–, bada, bortizkeria guztiak eginda ere, hizkuntzak bizi dira oraindik. Eta, zergatik? Bada indar identitario handia dutelako, oso. Komunitatea kohesionatzeko berealdiko indarra.

**Badaki?**

Esan dizut, badaki. Beste kontu bat da, eskolatik irteten denean guk nahiko genukeen katalan edo euskara ezagutza maila ote duen. Besterik da hori. Izan ere, hizkuntzak hamaika erregistro ditu, hizkuntza ez da bat eta bakarra. Aldatu egiten da egoeraren, lekuaren, solaskidearen arabera... Ni neu, oraintxe, era jakin batean ari natzaizu hizketan hemen. Zuri ari naiz, bai, baina irakurleak ditut gogoan, ni ikusiko ez nauten solas-

**“Umeak, eskolakoa ez bestelako erregistroekin topo egiten duenean, ez du zailtasunik izango, batere”**

kide horiek, irakurriko nautenak. Horrek, era jakin batera hitz egitera behartzen nau, esaten ari naizenari tankera eman diezaioten. Eztabaidan ariko bagina, ea Realak –Real zalea bainaiz–, bigarren itzulua lehenengoaren tamainakoa egingo duen, eta pixka bat saiatur gero UEFARA sailkatzeko moduan izango ote diren... bada, beste erregistro bat erabiliko nuke, zeharo diferentea. Zer dugu hemen? Eskolak erregistro halako bat darabilela, ikaskuntza-irakaskun-

tza ekintzetako hizkuntza erregistroa. Eskolan ez da erakusten neskatan edo mutiletan euskaraz egiten, ez da erakusten txikiteoa euskaraz egiten, ez da erakusten euskaraz jolasten eta jokatzeko... Eskolan, lan akademikoari lotutako hizkuntza irakasten da, hau da, erregistro jakin bat. Eta horixe da D ereduaren eskolatu eta gero dakiten euskara, ez beste bat. Jakina da D ereduko haur euskaldunak eskolakoa ez ezik beste zenbait erregistro ere badituela, familiakoa eta beste, baina haur erdaldunak, D ereduaren ari izanagatik ere, ez dituela. Haatik, eskolan jaso duen erregistro hori hain da indartsua, non 11 urteko neskatxak –edo 15 urteko mutil gazteak–, aski izango baitu udan hiru hilabete Goierriko herri halako batean igarotzea, edo Leitzaan –gizarte harremanetarako hizkuntza euskara delako herri horietan–, bertako gazte eta adolezenteekin nahastea, eskolan jaso duen erregistro horri beste hainbat erregistro eransteko... Honenbestez, eskolaren lana nahitaezkoa da, oinarritzakoa: euskararekin ez txean ez lagunartean harremanik ez duten haurrei hizkuntza horren ezagutza bermatzen die. Eta ezagutza horretan oinarriturik, bestelako erregistroekin topo egiten dutenean, ez du zailtasunik izango, batere. ■

## Inkesta soziolinguistikoa egiteko eskaria

NAFARROA BAI-K mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan eta Gobernuari eskatu dio Eusko Jaur-laritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) bost urtean behin egiten duten inkesta soziolinguistikoa egiteko. 1990eko hamarkadan egindako bi inkestetan Nafarroako Gobernuak parte hartu zuen, baina 2002az geroztik ez. Inkestak bere kabuz egingo zituela erantzun zuen, beste metodologia bat erabilita. NaBairen ustez, Jaur-laritzak eta EEPk egiten duten inkesta da eus-

kararen egoera ondoen erakusten duen metodoa. UPN ezik beste alderdi guztiek baiezkua eman dute.

## Agote Sariak Farmaziako hiru irakaslerentzat

EHUKO Farmazia Fakultateko lau irakaslerentzat izan da Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak ematen duen Agote Saria. Jon Zarate, Monica Gallego, Enrique Etxebarri eta Oscar Casisenzat da saria, *Giza Fisiologia Farmazialarientzat* lanagatik. EHUKO Giza Fisiologia Farmazia Fakultateko 2. mailako ikasleentzako prestatu dute lana lau irakasleek.

## BAHEA

Benito Fizek [karrajua.org](http://karrajua.org)-en esanak: “Euskara ikasteko denbora luzatuz joan dela pentsa daiteke. Arrazoiak egongo dira, eta ez dut uste arrazoi komertzialak izan direnik. 80 orduan ikastera ez gara helduko, ez gu ez inor, baina efizientzia neurgailu jar-tzen badira, oraingo denborak zelan murriztu pentsatu beharko litzateke akaso.

Ikasteko denbora laburtu, ez ikastaroen luzera bakarrik, noski”.

Koldo Izagirrek [Berrian](#) esanak: “ETarik ez egoteak, edo babes politikorik gabeko ETA azkendu bat egoteak arazoak ekarriko dizkio estatuaren estrategia klasikoa-ri. Orduan ETaren ordezkoko bat bilatu beharko du. Nola aurkitu dute islamismoa gaitz guztien ama, behialako komunismoaren ordezkoko? Bada, terrorismoaren ordezkoko euskara hartuko dute, euskararen inposaketa, elebakarre-ra itzuli nahi dugun kabernikolak, hizkuntzaren diktadura, gaztela-niaganako gorrotoa... Hizkuntza gatazkak sortu eta asmatuko dituzte beren demokratikotasun ezin moralagotik inposaketa indar-tzeko”.

Mertxe Rodriguez [Marimototsek](#) [HABE](#) aldizkarian esanak:

“Koadrilako harremana gaztelan-iaz zen. Euskaltegitik bueltan hasi nintzen pixkanaka euskaraz hitz egiten, kostata. Baina bazen koadrilan neska euskaldun bat, andereño zena Iruñean. Oso ohi-tuta zegoen bera euskaraz egiten eta erantzuna gaztelan-iaz jasotzen eta orduan berarekin honela egi-ten nuen. Berak beti euskaraz egi-ten zidan eta nik erdaraz erantzun. Horrela hasi nintzen. Halako batean, konturatu gabe buelta ematen diozu horri eta euskaraz erantzuten hasten zara, modu naturalean”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Merkelek inposatutako soldatak

Angela Merkel bozeramale eta Nicolas Sarkozy txotxongilo dituztela, “Merka-tuek” pentsioen erreforma inposatu dute, eta orain negoziazio kolektiboaren ordua iritsi da. Erreforma horren barruan soldatak sartzen dira. Merkelek argi utzi zuen bere posizioa, gainerako Europar Batasunarentzat (EB) ezarri nahi duena, bestalde. EBN Lehiakortasunerako Ituna negoziatzen ari dira, sei pun-turen inguruan: soldatak inflazioaren arabera igo behar direla esaten duen tesia utzi eta hauek produktibitateari lotzea; konstituzioetan zorraren eta defi-zitaren mugak sartzea; lan mugikortasuna erraztea; jubilazio adina bilakaera demografikoaren arabera atzeratzea; elkarleen gaineko oinarritzko zerga har-monizatzea; eta banka-krisiak konpontzeko mekanismoa ezartzea.

Espainiako Estatua inposatu dizkieten etxeko lan horiek betetzen hasi da: lan eta pentsioen erreformak. Eta orain negoziazio kolektiboaren erreforma hasiko da, soldatak ezartzeko modua barnean duela. Merkelek, Sarkozyren laguntzarekin, jadanik esana du zer egin behar den eremu horretan. Soldatak enpresaren produktibitateari lotu behar dira, eta ez inflaziora, orain arte beza-la. Berehalakoan, Espainiako Bankuak, CEOEK, BBVak, Espainiako Gobernuak eta EAJK –Bilbaok hitz egin baitzuen–, Merkelen errezeta bere egin dute, eta sindikatuei inposatzen saiatzen ari dira. CCOOK eta UGTk, beti beza-la, “ezta pentsatu ere” esan dute, hortik ez direla pasako. Eta gogorarazi dute Espainiako Estatuan paktaturiko ereduak inflazioaren aurreikuspen harmoni-koa, berrikuspen klausula eta produktibitatearen banaketa negoziatua jaso-tzen dituela. Bada, sindikatu horiek, jubilazioa 67 urtera atzeratetik ez zirela pasako ere esan zuten. Eta pasa ziren! Eta irribarretsu, Borboi Erregearen ondoan argazki atera zuten. Eta orain ere pasako dira soldatekin, eta bihar osasungintzako kopagoarekin. Bitartean, euskal langileek Madril eta Parisen menpe egotearen ondorioak jasaten jarraituko dute.

Juan Mari Arregi


## Sortu da esperantza

**ESPERANTZA** sortu da. Eta esperantza Sortu da. Esaldi biek dute zentzurik biziena azken hamar egunetan euskal gizartearen gertatzen ari dena ikusita. Bai bake prozesua azkenean euskal gizarte osora barreiatu delako; eta baita Sorturen biziraupenak eta arrakastak gatazkaren atea ixten duelako, normalizazio politikoarena parez pare zabalduz. Eta hauteskunde bezperan indar politiko zehatz bati arrakasta desio izatea oso politikoki zuzena ez bada ere, oraingoan merezi du Sortu-ri arrakasta hori opa izatea, alderdien lehiatik harago, Sortu une honetan bakearen simila ere badelako, alderdi berriak aurrera egiten duen neurrian, bakeak ere aurrera egingo duelako.

Euskaldunako ekitaldiaren ondoren, lur barneko mugimenduen metaketak lurrikara itxura hartu du eta euskal gizartearen %98ak –zelanbait adierazteagatik– ETArek ondorengo gizartea irudikatu du lehenbiziz azken 30 urteetan. Lizarra-Garaziko saioan izan zen halako sentimendurik, baina batez ere esparru abertzalera mugatu zen. Oraingoa orokorra da, eta epizentrotik urrutien dagoen PP bera ere astindu du lurrikarak, EAEn bederen. Nafarroan ez, abertzale zein eskuindarrean, horretan ere desberdinak izan behar erresuma zaharrean. Alde horretatik –eta maiatzeko hauteskunde ondorenera begira–, bada Nafarroaren berezitasun hori buruzko hausnarketak partekatu eta txukuna gauzatzeko ordua.

### AUTOKRITIKA, EZ AUTOERASOA.

Iraganera begira direnek erasokor hartu dute Rufi Etxeberría eta Iñigo Iruinen taularatzea. Hemen gutxi



dira, baina boteretsuak, Espainiaren bihotza ukitzen delako. Gatazkaren ondorioei begiratu zaie ezker abertzalearen erraldoi urratsa baliogabetzeko, honek iragan osoa arbuiatu ez duelako. Politikoki ezin da ulertu, humanoki bai. Jadanik bideratzen hasi behar den arazoaren muintetako, zalantza barik.

Bada bestelako ikuspegirik ere: “Hainbat urtetan hori esaten, horregatik baztertuak edota erasotuak eta orain haiek ondorio berera iritsi dira, noiz eta 20 urte, 10 urte edo 4 urte beranduago?”. Hori da baita ere, ezker abertzale zabaleko jende askok sentitu duena. Eta ulergarria da. Ulergarria izan litekeen moduan batzuen pazientziari esker, ezker abertzalea zatiketa gehiago barik iritsi dela 2011ko otsailera.

Iraganaren zama –edo nondik begiratzen den indarra–, hor dago, eta ezker abertzaleak patxadaz ekin beharko dio bere iraganaren irakurketa autokritikoari, iragana etorkizunerako zama edo akuilu bilakatzearena horren baitan ere badagoelako. Hori guztia, oinarriko printzipioa kontuan hartuta, autokritika ez dela autoerasoa; autokritika ezker abertzale berri eta zabalaren eraikuntzarako zutabee-takoa delako. Ibilbide hori egitea ezinbestekoa da ezkerretik, ikuspegi eraldatzailetik zerbait berria erai-ki gura duenarentzat, barreneko grinak eztabaida eta hausnarketara

atera gabe nekez bideratuko baita aldaketa askoren motore izan litekeen mugimendu sozio-politiko berri-rik.

Iragan asteartean, Sorturen aurkezpenaren ondoren, Garak Arnaldo Otegiaren bideo ezagun eta ikusgarria twitteatu zuen etorkizunari buruzko zalantzak uxatzeko-

edo, eta hara funtsa: “Ezker abertzalea ez zen erresistitzeko jaio, irabazteko jaio zen”. Sortuk badu lanik mezuaren sozializazioan.

### ADISKIDETZEA ETA BORROKA.

Kontrajarriak badirudite ere, biak jorratu beharko ditu Sortuk aurrera begira. Berradiskidetzearen inguruko teoria guztia egina dago, orain gaitzena falta da, praktikan jartzea: indarkeria eza, giza eskubideekiko begirunea, sufrimenduarekiko enpatia zabala, iraganaren irakurketa kritiko eta konpartitua, biktimizekiko erreparazioa, gizartearen borondatea... Dena lapikoan sartu eta ekin irakinaldi geldoari, otortua gehienen gustukoa izan dadin.

Ahaztu barik, bizitzaren ohiko eltzea ere hor dela, arazoz borbor-ka. Finantza munduaren eraso bortitzak aurrera jarraitzen duela, lehen lan erreforma ukituarekin, gero pentsioen erreformarekin eta geroxeago akaso osasun edo hezkuntza sistemaren pribatizazioekin. Hor dela Zubietako erraustegiaren itzala: orain arte arazoa lur azpian gordez estali bada, orain dioxina eta furanotan aieratuta gorde gura dena. Hor dela euskarazko hedabideen larrialdia, hor euskal kulturaren homologazio proiektu geraezina, hor... Eraldatzailea izango bada, hori guztia ere egosi beharko delako ezker soberanista berriaren edo-zelako lapikotan.

PELLO ZUBIRIA

# Ogia eskatu dute egiptoarrek: petrolioa dute falta

Hillary Clintonek, urrunetik Egiptoko trantsizioa kudeatu nahiko lukeen potentziaren atzerri ministroak, esan du “ekaitz perfektua” ari dela osatzen Ekialde Hurbilean, baldin eta bertako agintariak lortzen ez badute herriak eskatu aldaketa sozial eta politikoak ezartzerik. Ekaitz horren osagai garrantzizkoen artean, janariak eta petrolioa daude.

OGIA DARAMA MANIFESTARIAK Egiptotik iritsitako argazki bat baino gehiagotan. Eskuarekin haserre erakusten duen barra edo buruan txapela moduan egokitutako opila. Geroago etorri dira aldarrikapen politikoak eta presidente zaharkituaren dimisio eskaerak. Orain trantsizio nahasian murgiltzen hasita daude buruzagi politikoak, asmatu ezinik nola uztartu 80 milioiren gaineko oreka politiko berria eta potentzia handien interes geopolitikoak.

Elikagaien garestitzeak liskarrak piztu behar zituela iragarria zuen Nazio Batuen Erakundeak. Mundutar gehienek oinarritzko menua osatuta baldin badago gari, arto, soja, azukre, olio eta esnekiz, horien prezioek azken hogeitak markak hautsi zituzten. Garia %43 garestitu zen 2010ean, artoa %60 eta azukrea %77.

Afrikako herrialde gehienak derrihortuta daude gaur egun elikagaiak inportatzera. Arabiarrak dira, Egipto buru dutela, munduan gari inportatzaile handienak. Hainbestera ote da gariaren kariotzea? Seguru baietz Tunisia, Aljeria eta Egipton gertatzen den moduan familia batek bere diru sarreraren erdia janaritarako behar baldin badu.

Inflazioak ohiturak aldarazi ditzaie, baita jateko moduak ere. Egiptoko familia askotako mahaletan gero

eta bakanago azaltzen dira fruituak eta zer esanik ez okela. Ahaztu ezazu arraina. Ordainetan, pobreak jate-na: ogia ogi tartean.

Baina elikaduraren prezioak kontrolatzea baino errazago lortuko dute egiptoarrek Mubarak alde batera uztea. Aspalditik dira jakiak eta oro har lehengaiak espekulaziorik munduko burtsetan, AEBetako Chicagokoan bidenabar. Norbaiti eskatzekotan “emaiguzu gaur / egunero-ko ogia”, *Hedge fund* eta inbertsio funtsei, finantzetako apostulari handiei behar zaie erregutu. Eta ez daude merkealditarako.

Besterik ezinean, Magrebeko agintariak dirulaguntza bidez kontrolatzen dituzte ogiaren eta elikagai oinarritzkoen prezioak. 2010ean, ordea, horietako askok espero baino ezintasun handiagoak aurkitu ditu *panem et circenses* banatuz herritarrek goxatzeko. Zergatik?

*Our Finite World* blogean Gail Tverberg-ek eman du erantzun bat, energi krisiari lotua, beste ia inork kontutan hartu ez duena. Tverberg *The Oil Drum* gune eta pentsamendu faktoriaren editoreetakoa ere bada (elkartean leloa hau da: “Energiaz eta gure etorkizunaz eztabaidatzen”). Petrolioaren urritzeaz zerbait badaki, beraz.

Tverberg gogorarazi du Egiptoko gobernuak aurretik iragarri

*Monthly Review* aldizkariak bere webgunean erakusten duen argazkiko gizona Bahaa Saber da: militante ezkertiarak aurrean bidea ixten dioten polizia opil bat erakusten die, joan den udazkenean soldaten igoera eskatuz Kairon egindako manifestazio batean. Urte luzez jornalak izotzurik eduki dituzte Egipton, bitartean inflazioa handitzen zihoalarik. Elikagaien prezioen igoera eta horientzako dirulaguntzen jaitiera izan dira aurretik zabalduko ezinegonak sutu duten pindarrak. Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren politikek suntsitu dute Afrikan eta oro har mundu osoan nekazaritza, laborariak hiritartzera behartuz eta kontrolik gabe hazi diren populazioak bazkatzeko agroindustria handiari erostera behartuz. Orain Egipton aski jaki ez da, inportatu behar direnak karu daude eta hondamendia borobiltzeko Ukraina eta Errusiak blokatu egin dituzte esportazioak.

zuela janarien gaineko subsidioak murriztu behar zituela. Milaka herritar kalera protestan irten ondoren, janarien dirulaguntzak mantendu eta energiarentzakoak handituko zituela agindu zuen.

Hitza betetzeko, ordea, Kairoko agintariak arazo larri bat daukate: finantza publikoak arras desorekatuta daukate. Funtsean aurten edo beranduenera heldu den urtean Egiptok ez duelako gehiago petroliorik edukiko esportatzeko.

## Elikagaia petrolioari loturik

Mubarak gainbehera hasi denerako Egipto *Peak Oil*-ean sartuta zegoen. Egiptoko ekonomiarentzako arazoa ez da bakarrik bertan gero eta petrolio gutxiago ekoizten dutela; kontua da aldi berean petrolio kontsumoak goraka segitu duela errukirik gabe. Horregatik ziur da Tverberg aurten bertan Egipto pasako dela petrolio esportatzaile izatetik inportatzaile izatera.

Esportatzen zuen petrolioaren gaineko zergekin ordaintzen zituen Kairoko hainbat subsidio, funtsean jaki oinarritzkoen prezioak apal atxikitzeke. Hortik laguntzen du diruz bertan kontsumitzen den erregaia ere. Orain, berriz, diru iturri horiek desagertzeaz gain askoz garestiago pagatu behar du kanpotik sartutako erregaia.



CIAren data basearen arabera - *CLA World Fact Book*- Egiptok sortzen duen Barne Produktu Gordina- ren %80 adinakoa da Kairoko Gobernuak daukan zorra. Petrolioaren eta honen eratorrien urritzearekin are gehiago desorekatuko zaizkio finantzak. Hori gutxi balitz, krisia dela eta gutxitu egin da trafiko Suezeko kanalean, estatuaren beste diru iturri nagusietakoa.

Populazioaren hazkundera, ordea, ez da mantsotu, %2 urtean, emakume bakoitzeko hiru haur. Gaur diren 80 milioi egiptoarrak elikatzeko gero eta soro gutxiago dago, hiritartze bortitza dela medio Nilo ibarra betonez eta asfaltoz bete da urte gutxitan. Ibai ertza ez den oro basamortu gelditu zen aspaldi.

Egiptok iresten dituen elikagaien %40 inportatzen du eta nabarmenago gariaren %60. Nondik eta zein prezioan eskuratu, ordea? Aurten uzta kaxkarra eman ei dute gari soroek munduan. Bioerregaietarako ere erabiltzen dute leku askotan. Denetan populazioak handitzen segitzen du. Nekazaritzan duela hamarkada batzuk igarri zen Iraultza Berdeak, ureztatzea eta ongarri kimikoak oinarri zituenak, onenak eman ditu. Guzti horri erantsi petrolioaren prezioengatik garraioaren garestitzea eta espekulatzailen presioa, eta dena esana dago jakien garestitzeaz.

“Baina zergatik daukate hain oihartzun bortitza Egiptoko arazoez munduko gainerako lekuetan?” galdetu du Gail Tverberge, ondoren

bere erantzunak aurreratzeko. Arrazoi bat da herrialde arabiar gehiago bizi direla antzeko presioen mende. “Janariak garestitzen ari dira edonon. Jende behartsu askok irabazten duenaren %50 edo gehiago behar du jateko, eta horientzako edozein kariatze benetako problema bihurtzen da. Herritar asko azkenean petrolioaren eta jakientzako subsidioren menpe bizi da. Horiek desgertzen badira edo inportazioen garestitzea berdintzeko adina igotzen ez badira, larri dabilta”.

Bigarrenik, Europak kezkatu begiratu dio Suezeko kanalarari. Hortik egunean batz besta milioi bat petrolio upel pasatzen da Europarantz. Hori berez Europak kontsumitzen dituen hamar milioi upeletatik bat besterik ez da, eta gainera guztia ez da Europan gelditzen, Ameriketara ere badoa. Baina gaur denok bizi dugun petrolio egarriarekin, horniduren %5 edo %7 arriskutan egoiteak loa galarazten du.


Bestalde, globalizazioarekin munduko ekonomia *just in time* sisteman dago antolatuta, enpresa askoren *stock*ak oso dira murriztak, hein batean biltegiak bideetako kamioiak eta itsasaldian doazen ontziak dira. Suezeko kanala itxi baledi, pakebo- teek egun luzeagoak egin beharko lituzteke Afrika bazterretatik, baina itsasbide berriok erregai gehiago xahutzeaz gain antolatu egin beharko lirakeke.

Egipto? Europa eta AEB begira daude Suezeko kanalarari, islamistei eta Israeli. Egipto? Marokon Mohamend VI.ak igo egin ditu gari, olio, azukre, gas eta gasolinarentzako dirulaguntzak. Badaezpada ere. ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia



Baleren Bakaikoa Azurmendi

## Aurrezki kutxen etorkizun lausoa


**J**adanik bada urte pare bat Nazioarteko Diru Funtsak aitortu zuela Espainiako Estatuko aurrezki kutxek pribatizatze bidea hartu behar zutela. Berehala, Espainiako

Bankuko gobernadoreak, MAFO neoliberal-sozialistak, bereak egin zituen hitz eta asmo horiek eta martxan jarri zuen helburu horretarako prozesua; hobekiago egingo luke gizon horrek kutxen maileguen arrisku mailak zuhurtasun handiagoz kontrolatuko balitu. Honen guztiaren ondorioz, eta ikusirik zein egoeratan geratu ziren finantza krisiarekin, ez da batere zaila izan kutxa gehienak pribatizazio ildora bideratzea.

Kutxak pribatizatze arrazoiak ugariak dira. Alde batetik, bankuen egarria kutxetako gordailuak eskuratzeko, geure artean gordailu horien erdia kutxetara zuzentzen baita. Dirutza horiek bankuek erdietsiz gero, horien negozioak eta mozkinak hazteko parada ezin hobe da. Beraz, hasiera batean familia txiroentzat eta gerora familientzat eta enpresa txiki eta ertainentzat izan diren finantza erakundeei, bat-batean pribatizatze bidea hartarazi zaie, helburu sozialak baztertuta.

Bestalde, kutxak erakunde publikoak babestuta sortu ziren eta horrela egon dira gaur egunera arte. Izan ere, gizartearen finantza beharrianak estaltzeko behar zuten izan, baina, denboraren poderioan bankuen negozio ilunetara hurbildu dira, une jakin batean dirua erraz irabazteko modua aurkitu baitzuten. Horrela murgildu ziren “adreiluaren” negozio opakoetan eta krisiak jo dituenengan, beraien aktiboek balioa galdu dute eta uste baino zor handiagoak dituztela ohartu gara, nahiz hau ez den euskal kutxen kasua.

Erakunde publikoek babestuta egoteak beste ondorio kezkagarriak ere ekarri dizkie kutxa guztiei. Izan ere, kutxen administrazio kontseiluak ez dira osatu, inola ere, ekonomian eta finantzetan aditutako profesionalekin, baizik zela politikoa jokatzaren duten alderdietako politikariek. Eta horrela ezin dira negozioak egin.



MADDI SOROA

Hortik euskal kutxen bategiteak jasan duen porrota. Egoera hau ez bada konpontzen, berriro sortuko dira arazoak eta negozio munduan txukun aritu ordez, politikarien interes alderdikoiek “kudeatuko” dituzte, ez negozio garden eta herrikoiak.

Zer egin behar lukete euskal kutxek ahal den etorkizunik txukunena izateko? Sarritan idatzi izan dugu euskal hiru kutxen (tamalez, Nafarroakoa ezinezkoa da gorago esandako arrazoi politikoengatik) bategitea defendatzen: indartsuago eta sozialago izateko bide bakarra delako. Eta pribatizazio ildoari heldu beharrean, gizarte ekonomiako erakundea izaten jarraitu



Erakunde publikoek babestuta egoteak beste ondorio kezkagarriak ere ekarri dizkie kutxa guztiei. Izan ere, kutxen administrazio kontseiluak ez dira osatu, inola ere, ekonomian eta finantzetan adituak diren profesionalekin, baizik zela politikoa jokatzaren duten alderdietako politikariek.




behar du kutxa bakar horrek; horrela, kapitala saritu ordez, euskal gizartearen ongizatea areagotu egingo litzateke.

Gainera, finantza erakunde handiago eta sendoago batek ahalbidetuko luke euskal enpresa estrategikoetan (Iberdrola) inbertsio garrantzitsuak egitea, lekualdatzeak ekiditeko, baita enpresa estrategiko berriak (Euskaltel) sortzeko ere. Kapitala mozkin handiagoen atzetik alde batetik bestera mugitzen den bitartean, gizarte ekonomiako enpresek hurbileko ekonomia osatu eta indartzen dute. Halaber, euskal kutxa bakar horrek mota horretako enpresen artekoa izaten jarraituta, finantza negozioa, ezbairik gabe, euskal gizartea profitatzeko izango litzateke. ■

ASTE HONETAKO

# zozketa




## Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22  
Galdakao BIZKAIA

[www.andra-mari.com](http://www.andra-mari.com)

1




## The 44 Dealers

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak  
Soraluze GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

2



## Orgasmus

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea  
Tafalla NAFARROA

[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)

3



## Inguru Abentura

3 bikoteentzat  
elurretako erraketekin saioa

San Juan kalea, 18  
Albeniz ARABA

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)

4



## Illimani

2 liburu opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2263. Argia)

### ATXASPI

- Maider Sanz Goikoetxea (Larraut)

### TARPOON

- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
- Galdakaoko Aek Euskaltegia (Galdakao)

### PIRRITX eta PORROTX

- Lur Olea Garramiola (Ondarroa)
- Eneko Maioz Ganboa (Orexa)

### ELAIA

- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Miren Josune Ugarte Epelde (Bilbo)
- Xabier Ugarte Billar (Arrasate)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)

### KIROLAZ BADAKIT

- Jose Mari Etxezarreta Zelarain (Donostia)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



# Larrun 151

Datorren asteko **argia** rekin

## Bertso Txapelketari kritika

Ion Ansa, Oier Araolaza eta Fredi Paia

Bertsozale Elkartek antolatutako “Bertsolamintza: Inertziak erantzi, garena jantzi” jardunaldietako hizlariak



- \_ Txapelketa, “aniztasunaren aurkako mekanismo indartsua”?
- \_ “Bertsolari on” eta “bertsolari txar”etan antolatutako sistemaren itzalpeak
- \_ Txapelketaren balioak: indar mediatikoa, finantzabide izatea, euskal kulturaren hauspo...
- \_ Zergatik doaz bertsolariak txapelketara?
- \_ Autogestioa, itzalpeko alternatiba